



## LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIOETAKO

### SAILBURUA

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren osoko bilkurak, 2021eko abenduaren 22an egindako saioan, ertzean adierazitako kideak bertaratu direla, zure **kontsulta** aztertu du (199/2021 zenbakiarekin erregistratu da); hain zuzen ere, **Kable bidezko Garraioaren Legearen aurreproiektuari** dagokiona (**Erref.: DNCG\_LEY\_109719/20\_08**).

Eztabaidatu eta gero, irizpen hau eman du, aho batez. Batzordearen iritzia Calonge Crespo eta Pérez Ovejero batzordekideek adierazi dute.

#### **BATZORDEBURUA:**

Sabino Torre Díez jauna.

#### **BATZORDEBURUORDEA:**

Xabier Unanue Ortega jauna.

#### **BATZORDEKIDEAK:**

M<sup>a</sup> Teresa Astigarraga Goenaga andrea.  
Iñaki Beitia Ruiz de Arbulo jauna.  
Fátima Saiz Ruiz de Loizaga andrea.  
Iñaki Calonge Crespo jauna.  
M.<sup>a</sup> Lourdes Pérez Ovejero andrea.  
Mirari Erdaide Gabiola andrea.  
Jaione Juaristi Sánchez andrea.

#### **IDAZKARIA:**

Jesús M<sup>a</sup> Alonso Quilchano jauna.

## 204/2021 IRIZPENA

### AURREKARIAK

1. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuak, 2021eko azaroaren 11n emandako Aginduaren bidez, goian aipatutako lege-aurreproiektua aurkeztu dio Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari, irizpena eman diezaion. Urte eta hil bereko 15ean sartu da eskari hori Batzordearen erregistroan.
2. Bidalitako espedienteak, kontsulta egitea erabakitzeko aginduaz gain, honako dokumentazio hau jasotzen du:
  - a) Agindua, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, 2020ko abenduaren 18koa, legearen aurreproiektua jendaurreko kontsulta-aldian jartzen duena, hura egin aurretik.





- b) Agindua, 2021eko otsailaren 5koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, araua egiteko prozedurari hasiera ematen diona, aurreproiektuaren lehen zirriborroa erantsita, euskaraz eta gaztelaniaz.
- c) Txostena, aurreproiektuaren aurretiazko kontsulta publikoaren izapidean egindako ekarpenei buruzkoa, 2021eko martxoaren 1koa.
- d) Agindua, 2021eko apirilaren 8koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, lege-aurreproiektuari alde aurreko onarpena ematen diona, eta, horrekin batera, lege-aurreproiektuaren zirriborroa, euskaraz eta gaztelaniaz.
- e) Memoria ekonomikoa, Garraio Plangintzaren zuzendariak sinatua, 2021eko apirilaren 7koa, gaztelaniaz, eta 2021eko maiatzaren 25koa, euskaraz.
- f) Aurreproiektuaren justifikazio-memoria, Garraio Plangintzaren zuzendariak sinatua, 2021eko apirilaren 7koa, gaztelaniaz, eta 2021eko maiatzaren 25koa, euskaraz.
- g) Justifikazio-memoria, generoaren ikuspegitik garrantzirik ez izateari buruzkoa, Garraio Azpiegituren zuzendariak sinatua 2021eko apirilaren 7an.
- h) Txostena, Aholkularitza Juridikoarena, 2021eko apirilaren 22koa.
- i) Emakunderen errekerimendua, aurreproiektuak generoaren ikuspegitik duen eraginari buruzko ebaluazioa eskatzeko, 2021eko maiatzaren 5ean sinatua.
- j) Generoaren araberako eraginaren aurretiazko txostena, Garraio Plangintzaren zuzendariak 2021eko maiatzaren 6an sinatua.
- k) 2021eko maiatzaren 11ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratzea Garraio Plangintzaren zuzendariaren 2021eko apirilaren 26ko Ebazpena, aurreproiektua jendaurrean jartzen duena.
- l) Txostena, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzarena, 2021eko maiatzaren 17koa.
- m) Emakunderen txostena, 2021eko maiatzaren 21koa
- n) Ziurtagiria, Euskadiko Merkataritzako Aholku Batzordearena, 2021eko maiatzaren 25koa.



- o) 11/21 txostena, Kontratazio Publikoko Aholku Batzordearena, 2021eko maiatzaren 26koa.
- p) Alegazioak, Bilboko Udalarenak, 2021eko ekainaren 3an sinatuak.
- q) Alegazioak, Monte Igueldo SA enpresarenak, 2021eko ekainaren 11n sinatuak.
- r) Memoria laburra, aurreproiektua izapidetzeko prozedurari buruzkoa, Garraio Plangintzaren zuzendariak 2021eko uztailaren 6an sinatua.
- s) Txostena, Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearena, 2021eko uztailaren 22koa.
- t) 4/21 irizpena, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Kontseiluarena, 2021eko uztailaren 30ean sinatua.
- u) Memoria laburra, aurreproiektua izapidetzeko prozedurari buruzkoa, Garraio Plangintzaren zuzendariak 2021eko urriaren 18an sinatua.
- v) Txostena, Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak proposatutako aldaketei buruzkoa, Garraio Plangintzaren zuzendariak 2021eko urriaren 18an sinatua.
- w) Akta, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean (aurrerantzean, ETEL) aurreikusitako Aldebiko Batzordearen 2021eko irailaren 28ko bilerarena.
- x) Txostena, Aurrekontu Zuzendaritzarena, 2021eko urriaren 29koa.
- y) Legearen aurreproiektuaren beste zirriborro bat.
- z) Txostena, kontrol ekonomiko-normatiboari buruzkoa, Kontrol Ekonomikoko Bulegoarena, 2021eko azaroaren 2an sinatua.
- aa) Memoria laburra, aurreproiektua izapidetzeko prozedurari buruzkoa, Aholku Batzorde Juridikoarentzat, Garraio Plangintzaren zuzendariak 2021eko azaroaren 4an sinatua.
- bb) Memoria ekonomiko osagarria, 2021eko azaroaren 4an sinatua, Garraio Plangintzaren zuzendariarena.
- cc) Egiaztagiria, 1. fasean Legebiltzarrera bidali izanarena.
- dd) Egiaztagiria, lege-aurreproiektua Legesarean erakutsi izanarena.



## **BATZORDEAREN ESKU-HARTZEA**

3. Irizpen hau Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1 artikulua arabera eman da; izan ere, artikulua horren a) apartatua, Batzorde Juridikoari kontsultatu behar zaizkion gaien artean jasota daude «legearen aurreproiektuak, horien edukia eta helburua direnak direla ere».

## **AURREPROIEKTUAREN DESKRIPZIOA**

4. Irizpenerako aurkeztu diguten lege-aurreproiektuaren xedea da kable bidezko pertsonen garraioa arautzea Euskal Autonomia Erkidegoan.
5. Zioen azalpena eta hogeita hemezortzi artikulua ditu, lau kapitulutan banatuta, bai eta xedapen gehigarri bakarra, lau xedapen iragankor eta azken xedapen bat ere.
6. Zioen azalpenaren hasieran, kable bidezko garraioa garatzen den egungo arau-esparrua deskribatzen da. Funtsean, Europar Batasuneko araudi teknikoak eta estatuko araudiak osatzen dute, eta azken horietako asko Konstituzioaren aurrekoak dira. Egoera horrek justifikatzen du, azalpen horren arabera, Euskadin pertsonak kable bidez garraiatzeko instalazioen eraikuntza eta ustiapena arautuko duen lege-mailako arau bat eduki behar izatea.
7. I. kapituluak —xedapen orokorrak— hamaika artikulua ditu. Lehenengo artikulua proiektuaren xedea zehazten du: pertsonak kable bidez garraiatzeko instalazioen proiektua, eraikuntza, zerbitzuan jartzea eta ustiapena arautzea, instalazio horiek oso-osorik Euskal Autonomia Erkidegotik (EAE) igarotzen badira. 2. artikulua aplikazio-eremuari buruzkoa da, funikularrak, teleferikoak eta teleskiak hartzen ditu barruan, eta aplikazio-eremutik kanpo dauden instalazioak zehazten ditu. 3. artikulua arauaren helburuei buruzkoa da, eta honako hauek bermatzen ditu: segurtasun-mailarik altuena, pertsona guztien irisgarritasuna, eraikuntza eta ustiapena ingurumenarekin bateragarriak izatea, eta erabiltzaileen eskubideen babesa. 4. artikulua kable bidezko garraio-instalazioak sailkatzen ditu, garraio-bide publiko edo pribatu diren kontuan hartuta. Lehenengoan artean, era berean, zerbitzu publikokotzat hartzen direnak eta halakotzat hartzen ez direnak bereizten dira. Azkenik, eremuaren edo kokapenaren arabera, bereizi egiten dira hiri-eremuko eta hiriarteko instalazioak, udalerrri bakar batean edo gehiagotan kokatuta dauden kontuan hartuta.
8. 5. artikulua eskumen-araubideari heltzen dio, eta banaketa bat ezartzen du EAEko Administrazio Orokorraren eta 50.000 biztanletik gorako udalerrien artean. Nolanahi ere, EAEko Administrazio Orokorrari gordetzen zaio legearen arau-garapena, plangintza orokorra eta koordinazioa. 6. artikulua gainerako



legeria sektorialetik eratorritako betebeharrak betetzea ezartzen du, bereziki irisgarritasunari dagokionez. 7. artikulua arau orokor batzuk ezartzen ditu instalazioen segurtasuna lortzeko. 8. artikulua Eusko Jaurlaritzak kable bidezko garraio-instalazioen erregistroa sortzeko aukera aurreikusten du, ezertan eragotzi gabe administrazio eskudun bakoitzak erregistroak ezartzea. Babes-eremua aurreikusi du 9. artikulua, definitu, eta hau ezarri du: instalazioa eraikitzeko eta kontserbatzeko eta pertsonak salbatzeko legezko zortasunaren mende geratuko dela. 10. artikulua erabiltzaileen eskubideak aipatzen ditu, eta 11. artikulua, berriz, erabiltzaileen betebeharrak eta debekuak.

9. II. kapitulua —Instalatzeko eta ustiatzeko administrazio-araubidea— hiru ataletan banatuta dago. Lehenengo atala pertsonak kable bidez garraiatzeko zerbitzu publikoko instalazioei buruzkoa da, eta zortzi artikulua ditu, 12tik 19ra bitartekoak.
10. 12. artikulua prestatzeko jarduerak arautzen ditu. 13. artikulua, prozeduraren hasiera; administrazio publikoek edo gaitasun nahikoa duela egiaztatzen duen edozein pertsona fisiko edo juridikok abiaraz dezakete prozedura. 14. artikulua zerbitzua eta beharrezko diren obrak ustiatzeko proiektua zehazten du, eta horrek izan behar duen justifikazioa ezarri. 15. artikulua arabera, jendaurreko informazioaren izapidea eta beharrezko txostenak egin behar dira, eta instalazioak eragiten dien beste erakunde eta administrazio batzuen nabarmendu behar da. 16. artikulua proiektuaren onarpenari eta horrek dakarren onura publikoaren deklarazioari buruzkoa da. 17. artikulua instalazioak eraiki eta ustiatzeko araubidearen berezitasunak aurreikusi ditu. 18. artikulua kontratuen baldintzei buruzkoa da, eta sektore publikoko kontratazioari buruzko legeriara jotzen du. 19. artikulua kontratuen indarraldia eta amaiera zehazten ditu, eta proiektuan aurreikusi eta Administrazioak onartutako amortizazio-epeen arabera finkatu beharko dira.
11. II. kapituluko bigarren atala pertsonak kable bidez garraiatzeko zerbitzu publikoak ez diren garraio publikoko instalazioei buruzkoa da, eta sei artikulua ditu, 20. artikulutik 24. artikulura bitartekoak, biak barne.
12. 20. artikulua definitzen du zer prozedura eta dokumentazio behar diren zerbitzu publikotzat hartzen ez diren kable bidezko garraio publikoko instalazioak eraiki eta ustiatzeko. Ekimena, hemen ere, administrazio publikoei zein gaitasun nahikoa duela egiaztatzen duen edozein pertsona fisiko edo juridikori dagokie. 21. artikulua organo eskudunak proiektua onartzeari egiten dio erreferentzia, eta 6 hilabeteko epea ezartzen du ebazpena emateko. Epe hori igaro eta berariazko ebazpenik jakinarazi ez bada, interesdunak bere eskaera ezetsi dela



ulertu ahal izango du. 22. artikulua ustiatzeko administrazio-baimena azaltzen du; izan ere, baimen hori behar da, Eusko Jaurlaritzak zerbitzuan jartzeko baimena eman baino lehen. 23. artikulua baimenaren baldintzak zehazten ditu, eta urtero berritzeko baldintza nabarmendu behar da. 24. artikulua instalazioak aldatzeari eta eskualdatzeari buruzkoa da. Aldaketari dagokionez, funtsezko aldaketak direnean baimena behar dela ezartzen du, eta gainerakoetan, berriz, nahikoa dela komunikazio hutsa. Instalazio baten titulartasuna eskualdatzeko ere alde aurreko baimena beharko da.

13. II. kapituluak hirugarren atala garraio pribatuko instalazioei buruzkoa da. Artikulu bakarra du, 25. artikulua, zeinak, halaber, alde aurreko baimena eskatzen baitu instalazio horietarako. Prozedurari dagokionez, bigarren atalean aurreikusitakoari lotzen zaio, ezaugarri bereziek zehazten dituzten aldaketekin, hala badagozkie.
14. III. kapituluak —Instalazioak ikuskatzea eta kontrolatzea— 26. eta 27. artikulua hartzen ditu. Lehenengo ikuskapen-araubidez ari da. Ikuskapen-lanak egiten dituzten langileak agintari publikotzat hartuko dira, eta nabarmentzekoa da aukera hau: ikuskatzeko ahala esleitzea kable bidezko garraio-zerbitzu publikoa ustiatzen duten enpresei, erabiltzaileek eta, oro har, hirugarrenek arauak betetzen dituztela berehala zaintzeari dagokionez. 27. artikulua, bestalde, aurreproiektuak araututako zerbitzuak eta jarduerak egiten dituzten pertsonak bete eta mantendu beharreko kontrol-dokumentazioari buruzkoa da.
15. IV. kapituluak — zehapen-araubidea — hamaika artikulua ditu. 28. artikulua erantzukizuna zehazten du, eta modu abstraktuan ezartzen du nor izan daitekeen aurreproiektuan aurreikusitako arau-hauste administratiboen erantzulea. 29. artikulua arabera, arau-hausteak dira erantzuleen egite edo ez-egiteak, aurreproiektuaren arabera tipifikatuta eta zehatuta daudenak. Saillapenean bereizketa klasikoa jasotzen da: oso larriak, larriak eta arinak. 30., 31. eta 32. Artikuluek hurrenez hurren jasotzen dituzte arau-hauste oso larriak, larriak eta arinak. 33. artikulua kautela-neurriak hartzeko aukera jasotzen du, eta, horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zehatzeko ahala arautzen duen legeriara jotzen du. 34. artikulua zehapenak eta horien mailaketa finkatzen ditu, eta berrerortzea ere definitzen du. 35. artikulua neurri osagarri gisa aurreikusten du emakidaren iraungitzea edo baimenaren ezeztapena eta zerbitzu publikoan esku-hartzea. 36. artikulua arau-hausteen eta zehapenen preskripzio-epea zedarritzen du, zehatzeko ahalari buruz indarrean dagoen araudira jotzen. 37. artikulua zehapenak ezartzeko eskumena duten organoak azaltzen ditu, eta, baimena kentzeari dagokionez, baimena eman zuen administrazioari berari dagokiola adierazi. 38. artikulua zehapen-prozedura



zehazten du, EAEko zehatzeko ahala arautzen duen legeriara joz, eta sei hilabeteko iraungitze-epea ezartzen du.

16. Xedapen gehigarri bakarraren arabera, ahalmena ematen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari zehapenen zenbatekoa egokitzeko kontsumoko prezioen indizeen bilakaeraren arabera.
17. Lehenengo xedapen orokorraren arabera, legea erregelamendu bidez garatzen ez den bitartean, arlo honetan indarrean dauden arauak aplikatuko dira, legearen aurka ez doan guztian. Bigarrenak ezartzen duenez, Udalak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren lekuan subrogatuko dira erakunde emaile gisa, baldin eta udalerrri horietan hiri-eremuko zerbitzu publikoko igogailuak badaude edo egon badira. Subrogazio horren baldintzak inplikaturako administrazioen arteko hitzarmen baten bidez zehaztuko dira. Hirugarrenaren arabera, 50.000 biztanle baino gehiago dituzten udalak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren lekuan subrogatuko dira erakunde emaile gisa, baldin eta udalerrri horietan hiri-eremuko kable bidezko garraio-instalazioak badaude edo egon badira Laugarrenaren arabera, legea indarrean sartzean izapidetzen ari diren baimenen eta emakiden espedientei aplikatuko zaie legea.
18. Azken xedapenak araua indarrean sartzea du hizpide.

## **KONTUAN HARTZEKOAK**

### **I ESKUMEN-TITULUA**

19. Proiektaturiko erregulazioari ekiteko gure autonomia-erkidegoak duen eskumenaren abiapuntua da Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren (EAEE) 10.32 artikulua, horren arabera autonomia-erkidegoak eskumen eskusiboa baitu kable bidezko garraioan, Konstituzioaren (EK) 149.1.20 eta 21 artikuluek xedatuari kalterik egin gabe.
20. Logikoa denez, EKren 148.1.5 eta 149.1.21 artikuluek xedatuaren arabera, lurralde-irizpidea da nagusi lehorreko garraioen alorreko eskumen-banaketa sisteman, eta, beraz, eskumena zedarrituta dago ibilbide guztia Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean duen kable bidezko garraiora, halaxe berretsi baitu Konstituzio Auzitegiak (denen erakusgarri, 86/1988 epaia, maiatzaren 3koa, eta 118/1996 epaia, ekainaren 27koa).
21. Behin zehaztuta aurreproiektuak kable bidezko garraioaren alorrean begiratu behar duen «lehen mailako» eskumen-esparrua, eta praktikan aurreproiektuari ezertan eragiten ez badio ere, hauxe adierazi behar da: Euskal Autonomia



Erkidegoak kable bidezko garraioaren alorrean zituen eskumenak zabaltzera etorri zela 5/1987 Lege Organikoa, uztailaren 30ekoa, errepide eta kable bidezko garraioei buruzko ahalmenak Estatutik autonomia erkidegoetara eskuordetzan ematekoa. Lege organiko horren bitartez, bere tituluak adierazten duenez, autonomia-erkidegoen esku utzi ziren Estatuak errepideko eta kable bidezko garraioaren alorrean zituen eskumen batzuk.

22. Azken horiei dagokienez, honako hau dio, lehenik eta behin, 9. artikulua: 1.- Estatuaren eskumeneko teleferikoetan edo kable bidezko trakzioa bai baina errodadura-bide finkorik ez duten beste baliabide batzuetan egindako garraioak direla-eta, dagokion autonomia-erkidegoaren esku uzten dira 2. artikuluan bidaiariak errepidez garraiatzeko erregulazio-zerbitzuak direla eta aurreikusitako funtzio berberak. Lege organikoaren 2. artikulua, bere aldetik, hauek joratu ditu: ibilbidea autonomia-erkidego bat baino gehiagoren lurraldetik duten bidaiarien barne-linea erregularretan sartutako zerbitzu partzialak, halakotzat hartuta garraio publiko erregularren linea baten bidaldi batzuk, egutegi, eta, hala bada, ordutegi propioekin ustiatzen dituztenak linea nagusiaren zatiak, eta, era berean, autonomia-erkidego baten lurraldearen barruan daudenak, oso-osorik.
23. Bigarrenik, 9. artikulua horrek berak honako hau adierazten du: 2.- Garraioaren ibilbidearen zatirik handiena zer autonomia-erkidegotan dagoen, bada eskuordetza erkidego horren aldekoa izango dela ulertuko da, non eta neguko edo eskiko estazioen garraio osagarriak ez diren, halakoetan, estazioaren edo horren instalazio gehienek gainera eskumena zer autonomia-erkidegok duen, horri egokituko baitaio eskuordetza.
24. Errepideko garraioaren arloan 5/1987 Lege Organikoan aurreikusitako eskumenak oraintsu osatu dira ekainaren 29ko 476/2021 Errege Dekretuaren bidez, eskumen horiekin lotutako giza baliabideei, aurrekontuei eta ondareari dagokienez.
25. Kable bidezko garraioari dagokion eskumen-tituluaz gain, nagusitzat agertzen baitzaigu argi eta garbi, egoki da gogoratzea aurreproiektua beste alor edo gai batzuetan sartzeko dela, eta autonomia-erkidegoak badituela eskumenak horien gainean ere.
26. Azpimarratzekoa da autonomia-erkidego honek eskumena duela industriaren alorrean, EAEEren 10.30 artikuluan ezarritakoaren arabera. Zehatzago, gaiaren funtsezko muinaren barruan, industria-segurtasunaren azpigaiaren barruan dauden jarduerak, industria-instalazio eta -establezimenduen eta haietan egindako produktuen segurtasunarekin zerikusia dutenak.





27. Halaber, kontuan hartuta kable bidezko garraio-instalazioen kopuru jakin bat kultura-ondasun babestuzat jotzen dela, ondare historiko, artistiko, monumental, arkeologiko eta zientifikoaren gaineko eskumen eskusiboa egongo litzateke jokoan, EAEko Autonomia Estatutuaren 10.19 artikuluan arautua.
28. Aurreproiektuaren 10. eta 11. artikuluek erabiltzaileen eskubideak, betebeharrak eta debekuak arautzen dituztenez, EAEren 10.28 artikulua ere babestuko lituzke, zeinak eskumen eskusibotzat hartzen baitu kontsumitzailearen eta erabiltzailearen defentsa 27. apartatuaren arabera, hau da, prezio-politika orokorrari, Estatuko lurraldean ondasunen zirkulazio askeari eta lehiaren defentsari buruzko legeriari kalterik egin gabe.
29. Era berean, ingurumen-inpaktuaren adierazpenari buruzkoek ere badute babesik, EAEren 11.1.a) artikuluan zehazki, legegintza-garapenerako eta exekuziorako eskumenak aurreikusi baititu ingurumenaren eta ekologiaren alorretan.
30. Instalazioen segurtasuna eta autobabeserako planak aipatzen direnez, gure autonomia-erkidegoak babes zibilaren alorrean duen eskumena ere aipatu behar da, EKren 149.1.29 artikuluko segurtasun publikoaren barruan, segurtasun publikotzat hartuta jardueren multzo bat, pertsonen eta ondasunen babesa eta lasaitasun eta ordena publikoari eustea xede dituen. Eremu horretan, pilatu egiten dira, alde batetik, Estatuaren eskumenak (EKren 149.1.29 artikuluko erreserbaren arabera dagozkionak) eta, bestetik, eskumenak bereganatu dituzten autonomia-erkidegoenak –guri dagokigunez, autonomia-estatutuaren (EAE) 17. artikulua bitartez–.
31. EAEn dauden kable bidezko instalazioak Estatuko lege-esparru baten arabera arautu dira orain arte, eta esparru hori arau hauek osatzen zuten: Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko uztailaren 30eko 16/1987 Legea (aurrerantzean, LGAL), eta, zehatzago, Teleferikoen Emakidari buruzko apirilaren 29ko 4/1964 Legea (aurrerantzean, TEL), eta martxoaren 10eko 673/1966 Dekretua, legearen aplikazio-erregelamendua onartu zuena. Arau-esparru hori zaharkituta dago gaur egun, eta ez da nahikoa; izan ere, garraio-sistema honek berrikuntza teknologikoak izan ditu azken urteotan.
32. Berrikuntza horiek Europako arau honetan jaso ziren: 2000/9/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, martxoaren 20koa, pertsonak kable bidez garraiatzeko instalazioei buruzkoa. Zuzentarau hori barne zuzenbidera ekartzeko eman zuten 596/2002 Errege Dekretua, ekainaren 28koa, pertsonak kable bidez garraiatzeko instalazioak proiektatu, eraiki, zerbitzuan jarri eta ustiatzeko bete behar diren baldintzak eta aplikatzekoa den araubide juridikoa



arautzen dituen, zeina oinarrizko izaerarekin eman baitzen haren azken xedapenetako lehenengoaren arabera, EKren 149.1.13 artikuluen babesean.

33. Gero, 2000/9/EE Zuzentaraua indargabetzera etorri zen 2016/424 (EB) Erregelamendua, 2016ko martxoaren 9koa, pertsonak kable bidez garraiatzeko instalazioei buruzkoa, zeina indarrean baitago egun.
34. Mota horretako instalazioei aplikatu beharreko zenbait araudi teknikorekin lotuta, nabarmentzekoa da Batzordearen Komunikazioa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/424 (EB) Erregelamendua aplikatzearen esparruan egindakoa —erregelamendu hori kable bidezko garraio-instalazioei buruzkoa da, eta 2000/9/EE Zuzentaraua indargabetzen du—. Komunikazio horren bitartez publikatu da Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean 2016/4 (EB) Erregelamenduaren arabera argitaratutako arau bateratuen erreferentzien zerrenda.
35. Beste ikuspegi batetik, zehazki garraio publiko mota horren instalazioak ustiatzea zerbitzu publikotzat hartzen denean, EAEEn 11.1.b) artikuluen arabera autonomia-erkidego honi dagokio Estatuaren oinarrizko legeria lege bidez garatzea eta betearaztea bere lurraldean, bere eskumenen esparruan, administrazio-kontratu eta -emakidei dagokienez, bai eta bere autogobernu-erakundeen antolaketa, araubide eta funtzionamenduari buruzko eskumen esklusiboa ere (EAEEn 10.2 artikulua).
36. Batzorde honen 73/2016 irizpenean esan bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazioaren araubidea ezartzen duen dekretu-proiektuari dagokionez:

35. Administrazio-kontratazioari buruzko eskumenari dagokionez, oso gutxitan eman du iritzia Konstituzio Auzitegiak. Funtsean, honako hau aitortzera mugatu da: «EKren 149.1.18 artikulua Estatuari esleitzen dio, besteak beste, 'Administrazio-kontratu eta -emakidei buruzko oinarrizko legeria' emateko eskumen esklusiboa», baita «EKren 149.1.18 artikuluen arabera, autonomia-erkidegoek beren gain hartu ahal izan dute Estatuaren oinarrizko legeria garatzeko eskumena administrazio-kontratuen arloan» (237/2015 KAE, azaroaren 19koa, 56/2014 KAE, apirilaren 10ekoa, aipatzen duena).

36. Halaber, gogorazi duenez, «Administrazio-kontratazioaren arloko oinarrizko araudiaren helburu nagusia, interes orokorreko beste helburu batzuek gain, publikitatearen, berdintasunaren, lehia askearen eta segurtasun



juridikoaren bermeak ematea da, herritarrei administrazio publiko guztiek tratamendu bera izango dutela bermatzeko» (56/2014 KAE, apirilaren 10ekoa; KAE hauek aipatzen ditu:141/1993, apirilaren 22koa; 331/1993 , azaroaren 12koa; eta 162/2009, apirilaren 29koa). Begiratu 68/21 KAE.»

37. Nolanahi ere, instalazio horien kontratazio- eta ustiapen-araubidean duten eragin berezia dela-eta, kontuan hartu behar dugu bai Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (SPKL) –horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora– bai hura garatzen duen araudiak ezarritakoa.
38. Arlo horretako erregulazioa osatze aldera, kontuan hartu behar da 3/2020 Errege Lege Dekretua, otsailaren 4koa, presako neurriena eta zainaren bidez Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzen baitira Europar Batasuneko zenbait zuzentzari honako eremu hauetan: sektore jakin batzuetako kontratazio publikoa, aseguru pribatuak, pentsio-planak eta -funtsak, tributuen eremua eta auzi fiskalak. Egin-eginean ere, 2014/25/EB Zuzentzariaren transposizioa egin du, uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetako kontratazioari dagokionez, kontratatzaile direnean administrazio publikotzat jotzen ez diren botere adjudikatzailerak, enpresa publikoak eta, eskubide berezi edo eksklusiboak izaki, aurreko erakundeez bestelakoak.
39. Administrazio publikoek arlo berezi horietan egiten dituzten kontratuei buruz zuzentzari horretan ezarritako xedapenak azaroaren 8ko 31/2017 Legeak txertatu zituen gure ordenamendu juridikoan (lege horrek Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzen ditu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentzariak). Halaber, 3/2020 Errege Lege Dekretuak 2014/23/EB Zuzentzariaren transposizioa egiten du administrazio publiko ez diren botere adjudikatzailerak, enpresa publikoak eta eskubide berezia edo eksklusiboa duten beste entitate batzuek energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen arloetan egiten dituzten obra-emakidako kontratuen eta zerbitzu-kontratuen lizitazioari dagokienez.
40. Errege lege-dekretua administrazio publiko ez diren botere adjudikatzailerak aplikatzen zaie, administrazio publikoak azaroaren 8ko 9/2017 Legearen erregulazio zorrotzagoaren mende baitaude, diziplinari eta jardunaren kontrolari buruzko arazoiengatik. Hala ere, administrazio publikoak 2014/25/EB Zuzentzariaren mende daude, kontratu bat erregulazio harmonizatuaren aplikazio-esparrukotzat jotzeko ezartzen diren atalaseei dagokienez, azaroaren



8ko 9/2017 Legeak zortzigarren xedapen gehigarrian ezartzen duenarekin bat etorritik.

41. Lurralde historikoen eskumenei dagokienez, esan behar da proiektuak ez duela inolako eraginik lurralde historikoetako foru-erakundeek garraioen arloan esleitura dituzten eskumenetan.
42. Toki-erakundeei dagokienez, aurreproiektuak, jada adierazi dugunez, eragin handia du toki-korporazioen eskumenetan, 50.000 biztanle baino gehiagoko udaletan behintzat.
43. Arestian azaldutakoaren ildotik, udalerriei dagozkien eskumenak direla eta, adierazi behar dugu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak (TAOL), 25.2 artikuluan, toki-administrazioen berezko eskumen gisa aitortzen dituela, Estatuaren eta autonomia-erkidegoen legeriaren arabera, a) hirigintza; b) hiri-ingurumena; d) bide-azpiegitura; eta g) trafikoa, ibilgailuen aparkalekuak eta mugikortasuna. Hiri-garraio kolektiboa.
44. Bestalde, TAOLen 26.1.d) artikulua dioenez, «50.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan, lehengoz gain: bidaiari-taldeentzako hiriko garraioa eta ingurumenaren babesa».
45. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeak zehaztutako eskumen-araubideari dagokionez, gogora ekarri nahi dugu artikulua hauetan xedatzen dena: 17.1.18) artikuluan, udalerriek beren eskumenak dituztela «bidaiarien hiri barruko garraio publikoan –garraio bidea edozein dela–, betiere garraioa udalerrien barruan egiten bada osorik», eta 17.1.32 artikuluan, «udalerriko bideetan, pertsona, ibilgailu –motordun zein bestelako– eta animalien mugikortasuna eta irisgarritasuna nahiz pertsona eta salgaien garraioa antolatzea, kudeatzea, sustatzea eta diziplina-modua zehaztea; horretarako, beharrezko iritzitako baliabide materialak, teknikoak eta giza baliabideak jarri ahal izango dituzte».
46. Gainera, aurreproiektuaren planteamendua kontuan hartuta, beste eskumen batzuk ere badaude:
  - 8) Ingurumenaren babesa eta garapen jasagarria modu osagarrian antolatzea, sustatzea, kudeatzea eta defendatzea, hiriguneetan kutsadura akustikoa, argiaren kutsadura eta airearen kutsaduraren aurkako babesa barne hartuta.
  - 9) Hirigintzaren antolamendua, kudeaketa, exekuzioa eta diziplina.



31) Udalerriarenak diren herri barruko bide publikoak eta baserri-bideak antolatzea eta kudeatzea (kontserbatzea eta mantentzea barne).

## **II EGITEKO PROZEDURA**

47. Xedapen Orokorrak egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legea (aurrerantzean, XOEPL) egiaztatze-parametroa da irizpena egin behar zaion testua egiteko prozesua aztertzeko.
48. Aholku-batzordearen doktrina jarraituaren arabera, ohartarazi beharra dago, araubide-zertasun horrek ez duela balio gabetzen lege-aurreproiektuak egiteko prozeduraren azterketan lehenetsi beharreko ikusmoldea, bestelakoa izan behar duena, halakoak izapidetzearen ondorioz sortutako produktuek izaera berezia baitute.
49. XOEPLren asmoa da gobernuak beste arauen proiektuetan aplikatzen den metodologia bera erabiltzea lege-proiektuak egitean ere. Izan ere, xedapenaren zioen azalpenak dioenez, horrela «...legegintzako ahala duenaren eginkizuna erraztu egingo da, hobeto funtsatutako egitasmoak aurkeztuko baitzaizkio eztabaidarako eta erabakia hartzeko, helburuak iristeko egokiagoa eta finagoa den teknika juridikoaz artikulua banatua».
50. Hain zuzen ere, Legebiltzarrean hedatzen baita bere zabalean legegintza-prozedura, eta Konstituzioak (EK), Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutuak (EAE) edo, batzuetan, lege organikoek baldintzak ezartzen dituzten kasu berezietan izan ezik, lege-proiektuek bete beharreko baldintza bakarra da beharrezko aurrekariekin batera bidaltzea Legebiltzarrera, bere iritzia eman eta erabakia hartu ahal izan dezan, gutxienez ere, memoria orokorra, generoaren araberrako eraginaren eta zuzentze-neurrien aurretiazko azterketa, finantzaketari buruzko eranskina eta kontrol ekonomikoko txostena —aurrekontuari karga edo zama dakarkioten proiektuetan—, batzorde honen irizpena, eta legeriaren arabera nahitaezko diren beste txostenak (Jaurlaritzaren Legearen 57. artikulua, eta Eusko Legebiltzarreko Araudiaren 133.2 artikulua).
51. Beraz, lege-aurreproiektuetan, prozedura gobernu-egoitzan gauzatzen den bitartean, ezin du arriskuan jarri azken produktuaren baliozkotasuna. Helburu nagusi batekin aztertzen da egite-prozesua: hain zuzen, araua proposatutako edukiarekin idaztea eragin duen oinarri objektiboa ezagutzea. Ondorioz, legearen arrazionaltasunaren inguruan ikertzen da —ea hausnarketaren ondoriozko erabakia den—, baita haren arrazoizkotasunaren inguruan ere —ea bat datorren gure ordenamendua taxutzen duten arau axiologikoekin—.



52. Horretarako, aurreproiektuaren fase hauek aztertzen dira, betiere ikusmolde material batetik: organo sustatzailearen egite-fasea –hasierako testu arauemaileari zentzua ematen dioten arrazoiak eta gogoetak–; parte-hartze fasea –alegia, ea ukitutako pertsoneri eta sektoreei prozesuan parte hartzeko aukera eman zaien, jakiteko zer iritzi eta zer arrazoi dituzten testua onartu edo errefusatzeko–; organo gaituek esku-hartzeko fasea –arauak hala esleituta, testu arauemailea ikuspegi gaituetatik azter dezaten–; eta arauaren eraginpeko eskumenak dituzten administrazioen iritziak biltzeko fasea.
53. Prozedura aztertuz, halaber, egiaztatu daiteke ea aintzat hartu diren, kasuan-kasuan, arauaren bideragarritasuna baldintzatzen duten faktoreak (hau da, ea aztertu den bestelako hautabiderik eta horien ondorioz, eta benetan hautabideok aplikatzeko egon litezkeen aukerak, baita, orobat, horien bidez lortu nahi diren ondorioak erdiesteko gaitasuna ere). Alderdi horretan, azterketak arreta berezia jartzen du eragin ekonomikoaren gain: hau da, ahalegin publiko eta pribatuaren ebaluazioa jaso den.
54. Irizpen honen xedeko aurreproiektuan zentratuta, araua prestatzeko espedienteak lehenik dokumentatzen du alde aurreko kontsultaren izapidea, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2020ko abenduaren 18ko Aginduaren bitartez gauzatua. Bat dator Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak (aurrerantzean, APEL) 133.1 artikuluan dakartzan oinarritzko xedapenekin eta Gobernu Kontseiluaren 2017ko abenduaren 12ko Erabakiak jasotako jarraibideetan ezarritako irizpideekin (xedapen orokorrak egiteko prozeduraren aplikazioari buruzkoa da erabaki hori). Kontsulta horren bidez, etorkizuneko xedapenak eragingo dien eta ordezkartza handiena izan dezaketen pertsonen eta erakundeen iritzia jaso nahi da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratuta.
55. Halaber, txosten bat gehitu da, Irekia atarian epez kanpo jasotako bi ekarpenen berri ematen duena —partikularrek eginak: Urtzi eta Javier Martínez—.
56. Beraz, XOEPLk adierazitakoaren ildotik, araua prestatzeko prozedura abiarazteko agindua espedientean sartu dutela egiaztatu dugu.
57. Jasota dago, era berean, aurreproiektuaren lehen bertsioa idatzi eta gero eman dutela aurretiazko onarpenerako agindua, XOEPLren 7.1 artikulua aurreikusituenaren ildotik.
58. Aurreproiektuaren azalpen-memoriaren arabera, gaur egun badira Euskal Autonomia Erkidegoan kable bidezko garraiorako instalazio batzuk, lege



autonomikorik ezean, Estatuko legeak arau dituztenak. Estatuko lege-esparru hori, gainera, zaharkituta dago, eta ez da nahikoa, garraio-mota honek izan dituen berrikuntza teknologikoak ikusita, 2016/424 (EB) Erregelamenduak jaso baititu, 2016ko martxoaren 9koak, kable bidezko garraio-instalazioei buruzkoak. Lege lerruneko arau baten beharra justifikatzen du horrek. 50.000 biztanletik gorako udalerriei kable bidezko garraio-instalazioen eta igogailuen titulartasuna emateko erabakia justifikatzen da, nahiz eta azken horiek proiektatutako arauaren aplikazio-eremutik kanpo egon, hertsiki kable bidezko garraio-azpiegiturak ez direlako.

59. XOEPLren 7. artikuluko 3. apartatuko eskakizuna betetzeko, ekimena sustatu duen saileko Zerbitzu Zuzendaritzak txosten juridikoa egin du, eta ondo aztertu ditu oinarri objektiboa, edukia legeari eta zuzenbideari nola egokitzen zaien, eta araugintza-teknikaren jarraibideak bete ote diren; esan daiteke zehaztasunez aztertu dituela arau-lerruna, erreferentziako lege-esparrua, eskumen-oinarria, izapidetzean jarraitu beharreko prozedura eta artikuluen alderdi nagusiak. Txosten horrek gogorarazten du aztertzen ari garen aurreproiektua aurreko ekimen baten izapidetzera ekarritako txosten juridikoetatik elikatzen dela – besteak beste, Batzorde honen 68/2012 irizpenetik-. Aurreko ekimen hori Gobernu Kontseiluak onartu zuen 2012ko maiatzaren 29an, eta 2012ko maiatzaren 31n bidali zuten Legebiltzarrera, baina bertan behera geratu zen azkenean, eta antz handia zuen oraingo proiektuarekin.
60. Txosten horrek barne hartzen du arauak enpresetan izango lukeen inpaktuari buruzko txostena, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiei laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluan ezarritakoaren arabera.
61. Aurreproiektuak, era berean, entzunaldiaren, informazio publikoaren eta beste administrazio publiko batzuen parte-hartzearen izapideak jorratu dituela esan daiteke, XOEPLren 8. eta 9. artikuluetan eta APELen 133. artikuluan xedatutakoa aplikatuz.
62. Zehatzago, Garraio Plangintzaren zuzendariaren 2021eko apirilaren 26ko Ebazpenaren bidez gauzatu zen jendaurreko informazioaren izapidea (2021eko maiatzaren 11ko EHAA).
63. Jasota dago entzunaldia eman zaiela honako erakunde hauei: Bizkaiko Garraio Partzuergoa, Euskal Trenbide Sarea, Eusko Trenbideak, Eudel eta Kontsumobide. Arau-ekimena Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren esku ere jarri zen, arauaren edukiak haren eskumen-eremuan duen eragina dela eta.



64. Beste administrazio batzuen parte-hartzeari eta kontsultari dagokienez, hauetara jo dute: Estatuko Administrazioa— Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioa — eta Donostiako eta Bilboko udaletara.
65. Adierazitako parte-hartze, entzunaldi eta jendaurreko informazioko izapideen ondorioz, Monte Igeldo SA enpresaren eta Bilboko Udalaren alegazioak baino ez ziren jaso.
66. Monte Igeldo SA enpresak, Igeldo mendiko funikularra ustiatzen baitu, bi proposamen egin ditu alegazioen bitartez: (I) xedapen gehigarri bat sartzea, kultura-interesekotzat jotako funikularren irisgarritasun- eta segurtasun-betekizunak erregelamendu bidez garatzeko; eta (II) beste xedapen gehigarri bat, arau hau aplikatuz araubide juridikoa aldatzen zaien kable bidezko garraioak birsailkatzeko prozedura arautzeko. Bilboko Udalak proposatu du beste xedapen bat sartzea, bigarren xedapen iragankorra indarrean sartzea atzeratuko duena, subrogazioaren baldintzak jasoko dituen hitzarmen bat sinatu arte. Ekimena sustatu duen organoak ez du proposamen horietako bat ere onartu, 2021eko urriaren 18ko txostenean jasotzen denez; txosten horretan, prozeduran zehar proposatutako aldaketak baloratzen dira.
67. Oro har, esan dezakegu, halaber, udal-subrogazioak eragiten dien eta egun zerbitzuan dauden igogailuen eta funikularren administrazio-emakiden titulartasuna duten agente pribatuek aurreproiektuaren testua eskuratu dutela eta prozeduraren uneren batean ekarpenak egiteko aukera izan dutela. Baldintza horiek betetzen dituztenen artean, faltan eman dugu Ascensores Solokoetxe SA enpresari parte hartzeko berariazko errekerimendua egitea, enpresa horrek baitu izen bereko igogailuaren emakida.
68. Nahitaezko txostenen atalean, honako hauek ere sartu dira: I) Generoaren araberrako eraginaren behin-behineko txostena, bai eta Emakunderen txostena ere, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. eta 20. artikulua behar bezala aplikatzen direla egiaztatzen duena, eta hobetzeko proposamen batzuk ere egin dituen; II) Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena; III) Kontsumoko Aholku Batzordearen txostena; IV) Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordeak bere Batzorde Iraunkorraren bidez egindako txostena, kontratazioari buruzko ohar batzuekin; V) Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen irizpena, zeinak kritikatzeko baitu arauaren beharra azaltzeko arrazoirik eza; eta VI) kontrol ekonomiko normatiboari buruzkoa txostena, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak emana, zeinak defizita ikusi baitu garraio-modalitate horren kudeaketak zerikusia duten administrazioei dakarkien kostuen justifikazioan.





69. Aipamen berezia merezi du Tokiko Gobernuen Batzordearen txostenak, nahitaez egin behar baita ETELen 90. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, alerta goiztiarreko organo gisa duen eginkizuna kontuan hartuta eta proposatutako erregulazioak udal-eskumenetan duen eragina kontuan hartuta (126/2019 irizpena).
70. Txosten horrek zalantzan jartzen du, funtsean, igogailuak eta funikularrak udal-kudeaketara transferitzea, aurreproiektuak bigarren eta hirugarren xedapen iragankorretan arautzen duen bezala, toki-autonomia eta finantza-nahikotasunaren printzipioa urratzen dituelako, eta ez dituelako behar bezala zedarrizten eremu material bakoitzean esleitzen diren ahalmenak, nahitaez bereganatu behar baitituzte. Organo sustatzaileari eskatu dio egindako proposamenak eta aldaketak onar ditzala, edo, hala egin ezean, desadostasun horiek ebazteko aurreikusitako alde biko batzordea deitzea.
71. Alde biko batzorde hori 2021eko irailaren 28an eratu zen — Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko eta Tokiko Gobernuen Batzordeko ordezkariak osatua —, eta hartutako erabakien akta egin zuten. Akta hori araua egiteko espedienteetan dago jasota. Bigarren xedapen iragankorraren azken tartekia foro horretan hartutako erabakiaren emaitza da, subrogazioaren baldintzak zehazteko hitzarmen bat sinatzea eskatzen baitu.
72. Era berean, zenbait fasetan, prozedurari buruzko hiru memoria sartu dira espedienteetan, jasotako txosten eta alegazioetan planteatutako gaiei erantzuna emanez, XOEPLren 10.2 artikulua aurreikusitako baldintzetan. Memoria horiek argi eta garbi agortzen dute beren helburua; izan ere, Batzordeak esan duenez, kontua ez da iradokizun eta alegazio guzti-guztiak zehatz-mehatz azaltzea, baina bai erabaki garrantzitsuenei buruzko arrazoiak ematea. Legegileak prozedurazko *iter* guztiaren balorazio laburtua eskatzen du: oinarria, alternatibak, hartutako aukerak, haien arrazoiak eta balorazio juridikoa eta ekonomikoa.
73. XOEPLren 10.3 artikulua eskatzen duen bezala, espedienteak memoria ekonomikoaren lehen bertsio baten berri ematen du, zeinak adierazten baitu ez dagoela inongo aurrekontu-eraginik txostena egiten ari gatzazkion aurreproiektuaren ondorioz, eta aurreproiektuak ez duela zuzeneko eraginik Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren berezko gaietan. Txosten horrek zerrenda bat jasotzen du eragindako instalazioekin, bigarren eta hirugarren xedapen iragankorrek eragindakoak barne –igogailuak eta funikularrak–, eta horien gainean ez da sartzen subrogazioak eragindako administrazioei jasanaraz dakiekeen edozein gastu edo diru-sarrera, argudiatuta jada kudeatzen ari direla emakidadunaren arrisku eta menturarekin edo emakida iraungita dagoela eta, *de*



*facto*, dena udal-administrazioak etorkizunean hartzen dituen erabakien mende dagoela.

74. Memoria ekonomikoaren ondorengo txosten osagarri batean, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren eskariz egina, hau aztertzen da: zer ondorio ekonomiko ekarriko luketen ikuskatzaileen zereginak aldatzearekin lotutako antolaketa-aldaketek. Era berean, Administrazio Orokorrak 2022an izango dituen gastuak zehazteko, bigarren xedapen iragankorraren lehen apartatua aipatzen den hitzarmenari begiratu beharko zaio.
75. Bestalde, Aurrekontu Zuzendaritzaren txostenak, analisia aipatutako memoria ekonomikoan zentratuta, 2021eko aurrekontu-programa egiaztatzen du (5141), zeinak barnean hartzen baititu esparru horri lotutako gastu-partidak (200.000 euro) eta diru-sarrerarenak, zehapen-ahalaren ondoriozkoak (50.000 euro), eta nabarmentzen du 2022rako ez dela gastu espezifiko partidarik aurkitu, eta diru-sarreraren partida bat datorrela 2021ekoarekin.
76. Euskadiko mugikortasun jasagarriaren legearen aurreproiektuari buruz 188/2019 Irizpenean esan genuenaren ildotik (95-98 paragrafoak), memoria ekonomikoak defizit bat du eragin ekonomikoa zehaztu eta kuantifikatzeari dagokionez; izan ere, 50.000 biztanletik gorako udalei igogailuak eta kable bidezko garraio-instalazio jakin batzuk — funikularrak — ezarri, kudeatu, ikuskatu eta zehazteko eskumenak eskualdatzeko erabaki garrantzitsuak badu eragin ekonomikorik. Memoriak eta horren osagarriak egiten duten azterketa oso azalekoa da, eta osatu egin beharko litzateke, Batzordearen ustez, ETELen 18.3 eta 112. artikuluen eskakizunetara hobeto egokitzeko, eta, horrenbestez, XOEPLren 10.3 artikulura.
77. Jasota dago aurreproiektua 1. fasean bidali dela Legebiltzarrera, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56. artikulua eskatzen duen bezala.
78. Horiek guztiak horrela, balorazio orokor positiboa ematen dio Batzordeak prestatze-prozedurari, horren gaineko oharkizunak oharkizun.

### **III AURREPROIEKTUAREN EDUKIAREN AZTERKETA**

#### **A) Ohar orokorrak**

79. Ez da lehen aldia Batzorde honek irizpen honen xedeko gaia aztertzen duela. Kable bidezko garraioaren erregulazioa bi lege-aurreproiektutan jorratu zen, eta Gobernu Kontseiluak onartu bazituen ere, ez zuten Legebiltzarraren abala lortu; beraz, izapidetu ziren legegintzaldia amaituta, biak bertan behera geratu ziren.



80. Hasierako aurreproiektua gure 68/2012 Irizpenean aztertu genuen. Ondoren, 188/2019 Irizpenak berriro heldu zion gaiaren azterketari, baina, orduan, mugikortasun jasangarriari buruzko lege-aurreproiektu batean sartuta.
81. Aurreproiektu hau oso antzekoa da 68/2012 Irizpenaren xede izan zen testuarekin, eta nabarmendu behar da bere garaian egin ziren oharrak oro har kontuan hartu direla.
82. Aurreproiektuaren xedea da pertsonak kable bidez garraiatzeko instalazioen proiektzioa, eraikuntza, zerbitzuan jartzea eta ustiapena arautzea, instalazio horiek oso-osorik EAEko lurraldetik igarotzen badira.
83. Funtsezko alderdi gisa, testuak bere aplikazio-eremutik kanpo uzten ditu zerbitzu publikoko hiri-igogailu batzuk, arau tekniko hauen mende daudenak: 2014/33/EB Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2014ko otsailaren 26koa, Igogailuei buruzkoa, eta 203/2016 Errege Dekretua, maiatzaren 20koa, igogailuak eta igogailuetarako segurtasun-osagaiak merkaturatzeko funtsezko segurtasun-betekizunak ezartzen dituenak.
84. Kanpoan utzi izanaren arrazoia da 2014/33/EB Zuzentarauak segurtasun-legedi desberdina aurreikusi diela, bai eta diseinuari, eraikuntzari eta zerbitzuan jartzeari buruzkoa ere, eta, ondorioz, berariaz geratzen dira 2016/424 (EB) Erregelamendutik kanpo.
85. Horien artean bereizi behar dira, alde batetik, kable bidezko garraio-azpiegiturak ez izan arren, TELen ustiapen-araubidea eta hura garatzeko xedapenak aplikatu zaizkienak, eta, bestetik, udalek hiri-hausturako eremuetan ezarri dituztenak, erabiltzaileen irisgarritasuna errazteko.
86. Biek ala biek bete behar dituzte lehen aipatutako igogailuei buruzko araudi teknikoa. Administrazio-emakida izan dutenei soilik aplikatuko zaie legearen ikuskapen- eta zehapen-araubidea, emakida mantentzen den bitartean.
87. Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Industriari buruzko azaroaren 12ko 8/2004 Legeak (EAEIL) industria-segurtasuneko araudiaren mende jartzen du zenbait instalazio industrialen baimena eta funtzionamendua, eta, horien artean, igogailuena.
88. Batzorde honen 193/2013 Irizpenak azaltzen duenez, igogailuen mantentze-lanak eta aldizkako ikuskapenak arautzen dituen aginduari dagokionez, eskumen hori eskumen-banaketaren testuinguru honetan ulertu behar da:



20. Laburbilduz, eta hemen interesatzen zaigunerako, argi dago Autonomia Erkidegoak, EAEEn 10.30 artikularen arabera, igogailuen mantentze-lanetarako eta aldizkako ikuskapenerako prozedura arautu dezakeela.

21. Hala ere, ez da ahaztu behar oinarriko araudia errespetatu behar duela, kasu honetan, Industriari buruzko uztailaren 16ko 21/1992 Estatuko Legea (ELI), zeinak, hemen interesatzen zaigunerako, 12.5 artikuluan aitortzen baitu autonomia-erkidegoek eskumena dutela betekizun gehigarriak sartzeko, Gobernuak segurtasun-erregelamentuetan ezarritakoez gain; 2291/1985 Errege Dekretua, azaroaren 8koa, jasotzeko eta manutentziorako aparatuen Erregelamendua onartzen duena —Erregelamendu horren 19. artikularen arabera, jasotzeko aparatuei aldizkako kontserbazio-azterketak eta ikuskapenak egingo zaizkie, erregelamendu hori garatzeko jarraibide tekniko osagarrietan (JTO) ezarritakoak, eta jarraibide horiek zehaztuko dute kasu bakoitzean zenbat denbora igaro daitekeen, gehienez, bata bestearen ondorengo azterketa edo ikuskapenen artean—, eta 88/2013 Errege Dekretua, otsailaren 8koa, zeinaren bitartez onartzen baita AEM 1 «Igogailuak» JTO osagarria, azaroaren 8ko 2291/1985 Errege Dekretuz onartutako jasotzeko eta manutentziorako aparatuen Erregelamendua.

89. Era berean, hiri-eremuko emakida-araubidearen mendeko igogailuen titulartasunaren eskualdaketa eratzen da, kokatuta dauden udalen alde, orain arte EAEko Administrazio Orokorraren emakida-araubidearen mende ustiatu baitira.
90. 68/2012 Irizpenean esan genuenez, testuaren helburua da EAEEn eksklusibotzat aitortutako eskumen bat arautzea, beharbada izaera horretako instalazio gutxi izateagatik autonomia-erkidegoak ez baitu orain arte erregulatu. Izan ere, erregulazio hau aplikatzen baita gaur egun: aipatutako TEL, eta hori aplikatzeko erregelamendua onartu zuen martxoaren 10eko 673/1966 Dekretua, LGAL esparru orokortzat hartuta.
91. Gai horren erregulazioan, emakiden oinarri izan behar zuten gai tekniko eta administratiboak ez ziren arreta espezifikoaren xede izan TEL promulgatu zen arte. Hala, hasiera batean, emakida horiek toki-intereseko trenbide gisa eman ziren, Bigarren mailako trenbideen eta trenbide estrategikoen 1912ko Legearen mende.
92. Aztertutako testuak, adierazi dugun bezala, gure 68/2012 Irizpenaren xede izan zen aurreproiektuaren edukiaren zati handiena jasotzen du, bere garaian egin



ziren oharpen asko barne hartuta. Era berean, 188/2019 Irizpenean aztertutakoaren antzekoa da, nahiz eta arau-proiektu hark kable bidezko garraioa ikuspegi orokorrago batetik arautu, eta, zenbait alderditan, gure ustez, egungoa baino egokiagoa. Aurrekari horiek kontuan hartuta, gure ustez hobetu beharko liratekeen alderdiak baino ez ditugu aztertuko, araudia argiagoa izan dadin, baita gaiari buruzko erregulazio hobea izateko hausnartu beharko liratekeen alderdiak ere.

## **B) Artikuluei buruzko oharra:**

### **I. kapitulua. Xedapen orokorrak**

93. Honako hau da arauaren xedea, 1. artikuluan definitzen baita: pertsonak kable bidez garraiatzeko instalazioen proiektzioa, eraikuntza, zerbitzuan jartzea eta ustiapena arautzea, instalazio horiek oso-osorik Euskal Autonomia Erkidegotik igarotzen badira. Lurraldearen kontu hori testuan zehaztu da, aldez aurretik egin genuen iradokizunari jaramon eginda.
94. 2016/424 (EB) Erregelamenduak egiten duen bezala, kable bidezko trakzioa eta bidaiariak garraiatzeko funtzioa funtsezko irizpideak dira araua kable bidezko garraio-instalazio bati aplikatzen zaion ala ez zehazteko. Erregelamenduaren azalpen-zatian adierazten den bezala, estatu kide guztietan aplikazio-eremuak, funtsezko eskakizunek eta egokitasuna ebaluatzeko prozedurek berdinak izan behar dutenez, ez dago ia malgutasunik barne-zuzenbidean sartzeko.
95. Arauaren xedearen definizioa, aurreproiektuaren 1. artikuluan jaso, bat dator Europar Batasuneko araudian proiektatutakoarekin eta eskumenak banatzeko dagoen sistemarekin. Ez dirudi beharrezkoa denik 3. artikuluan adierazitako helburuak legearen definizioan sartzea, nahiz eta xedearen beraren osagaiak izan, beharrezkoak ez diren errepikapenak saihestuz.
96. Hala ere, Batasunaren arauak zehazten duen bezala, egokiagoa litzateke testuak adieraztea bere xedea kable bidezko garraio-instalazioetarako azpisistema eta segurtasun-osagaietara ere zabalduko dela.
97. Aurreproiektuaren 2. artikulua, 2016/424 EB Erregelamenduak ez bezala, ez baititu barne hartutako garraio-instalazioak zehazten, bere aplikazio-eremuan ohikoak diren jasotze-sistemak zerrendatzen eta definitzen ditu (funikularrak, teleferikoak eta teleskiak).
98. Haien artean, teleskien definizioa berrikusi beharko litzateke, 1.c) apartatuan jaso, garraioaren berezko ezaugarriekin zerikusirik ez duten alderdiak (jantziak)



jasotzen baititu. Egokiagoa litzateke 2012an izapidetutako lege-proiektuan jasotako definizioa; izan ere, bertan adierazten zen teleskiak kable baten bidez erabiltzaileak azalera baten gainean herrestan eramaten dituztenak.

99. Lehen adierazi dugun bezala, aurreproiektuak gaur egun gure lurraldean ez dauden instalazioak jasotzen ditu, hala nola teleferikoak edo teleskiak, baina horiek etorkizunean ezartzea ere ezin da baztertu.
100. Bestalde, 2016/424 EB Erregelamenduak oro har ezartzen du hauei bakarrik aplikatzen zaiela: instalazio berriei, baimen berria behar duten aldaketei eta kable bidezko garraio-instalazioetarako azpisistema eta segurtasun-osagaiari.
101. Gainera, kable bidezko garraio-instalazio jakin batzuk aplikazio-eremutik kanpo uzten ditu, bai Batasuneko harmonizazio-legeriako beste egintza espezifiko batzuei lotuta daudelako, bai nazio-mailan behar bezala arautu daitezkeelako.
102. Bereziki aipatu behar da EB Erregelamendutik kanpo utzi direla estatu kideek historia- eta kultura-ondare gisa sailkatutako kable bidezko garraio-instalazioak, 1986ko urtarrilaren 1a baino lehen martxan jarriak eta oraindik martxan daudenak, diseinuan edo eraikuntzan aldaketa esanguratsurik izan ez dutenak. Horien artean, kable bidezko garraio-instalazio horietarako berariaz diseinatutako azpisistemak eta segurtasun-osagaiak ere sar daitezke.
103. Horrelako instalazioei dagokienez, Erregelamenduak zehazten du estatu kideek kable bidezko garraio-instalazio horiei dagozkien pertsonen eta ondasunen osasunaren eta segurtasunaren babes-maila handia bermatu behar dutela, beharrezkoa izanez gero beren legeria nazionalaren bidez.
104. Aurreproiektuak, 2.2 artikuluan, ez ditu mota horretako instalazioak baztertzen, eta horrek ez du inolako arazorik sortzen, EAEk eskumena baitu instalazio horiek arautzeko, aipatu berezitasunak kontuan hartuta. Hala ere, espedientean egindako zenbait oharren harira, komeniko zen, beharbada, hausnarketa egitea ea egokia izango ote zen berariazko araubide bat ezartzea, instalazio horiek dituzten berezitasunak kontuan hartzeko, kultura-ondasun kalifikatu baitira Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen arabera (EKOL).
105. Aipatzekoa da instalazio horiek babes-araubide berezia dutela, Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez zehaztua, eta araudi sektorialaren aplikazioa, batez ere segurtasunari eta irisgarritasunari dagokienez, horrekin bateratu behar dela.
106. Beste alde batetik, azpimarratzekoa da arauak ez duela bere aplikazio-eremuan sartu EAEn dagoen instalazio oso enblematiko bat, gure ustez kable bidezko



garraioaren kategorian ezin hobeto sartzen dena. Portugaleteko transbordadore-zubiaz ari gara, garraio bide publikoa baita, eta haren araubide juridikoa emakida batetik abiatzen da, 1890eko otsailaren 12ko Errege Dekretuaren bidez 102 urterako emana. Bilboko Portu Agintaritzak lehiaketa bidez eman zuen emakida berria, 1996ko urtarriletik aurrera, hamar urterako, gero beste hogeituzetuzatuta.

107. Kultura-ondasun kalifikatuaren kategoria ere badu, EKOLen mendekoa, eta UNESCOk 2006ko ekainaren 12an gizateriaren ondare izendatu izana ere merezi izan du.
108. Nolanahi ere, EAEko lurraldean dagoen azpiegitura bat da, Estatuaren titulartasuneko itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoan kokatua. Horrek ez du eragozten EAEk arlo horretan esleituta dituen eskumenak baliatzea, arestian aipatutako araudiaren arabera.
109. Hala adierazi zuen Konstituzio Auzitegiak antzeko gatazka batean, uztailaren 3ko 77/1984 Epaiaren bidez:

3. Bilboko portu-barrutian, eskumen-konkurrentzia gerta daiteke, eta ez da horretarako oztopo Bilboko portua, bai zerbitzugunean, bai itsaso eta lehorraren artekoan, Estatuaren jabari publikoko ondasuna izatea: Estatuko Gobernuaren ordezkariak bereziki azpimarratu du hori, eta inork ez du zalantzan jartzen (Konstituzioaren 132.3 artikulua eta 1969ko Kostaldei buruzko Legearen 1. artikulua). Baina, alde batera utzita gure Konstituzioak eta EAEk (hemen interesatzen zaigun bakarria aipatzearen) ez dutela jabari publikoaren irizpidea erabiltzen eskumenak mugatzeko, egia da jabari publikoaren kontzeptuak ondasun-kategoria bat kalifikatzeko balio duela, baina ez lurralde-zati bat bere inguruetik isolatzeko, eta bertan eskumenak dituzten erakunde publikoen eskumenetatik salbuetsitako eremutat hartzeko. Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak eta Estatu Kontseiluaren doktrinak argi eta garbi adierazi dute, portuei eta itsaso eta lehorraren arteko eremuari dagokienez zehazki, bai batzuk eta bai besteak kokatuta dauden udal-mugartearen parte direla, oinarritzat hartuta Estatuko lurralde osoa udalerritan banatuta dagoela, eta, beraz, ezin direla haietatik kanpoko lurralde-eremuak geratu (1967ko urriaren 2ko, 1974ko urtarrilaren 24ko, 1977ko abenduaren 17ko eta 1980ko martxoaren 17ko epaiak, eta Estatu Kontseiluaren 1952ko maiatzaren 10eko eta 1957ko otsailaren 14ko irizpenak). Nahiko argi ematen du doktrina bera aplikatu behar zaiola Estatuko lurraldea autonomia-erkidegotan banatuta izateari



(Konstituzioaren 137. artikulua), batez ere Estatuko lurralde osoa autonomia-erkidegotan banatuta dagoelako orain.

Doktrina horren arabera, portuak (itsaso eta lehorraren arteko eremua barne) udal-mugarteetan egoteak esan nahi du udalek eta Estatuko Administrazioak beren eskumenak balia ditzaketela eremu horretan, eta hori autonomia-erkidegoei ere aplikatu behar zaie. Auzitegi hau jakitun dago espazio fisiko beraren gaineko eskumenen konkurrentzia horrek zailtasunak sor ditzakeela kasu jakin batzuetan, baina zailtasun horiek ez dute eragozten konkurrentzia posible izatearen printzipioa, autonomia-erkidego baten lurraldearen barruan espazio salbuetsirik egon gabe. Dena den, komenigarri dirudi lankidetzaz-irtenbideak bilatzea, bakoitzaren eskumenak errespetatuz, baina argi dago azken erabakia eskumen nagusiaren titularrari dagokiola.

110. Hori dela eta, komeniko litzateke zehaztea azpiegitura hori arauaren aplikazio-eremutik kanpo utzi behar den ala bertan sartu, eta, nolana ere, zer araubide juridiko aplikatu behar zaion EAEn eskumen-eremuan. Lehenago ere adierazi dugun bezala, halako kultura-ondasunetan, ondarea kontserbatzeko araudia eta araudi sektoriala elkarri egokitzea bilatu beharko da, instalazioen segurtasuna eta irisgarritasuna bermatu ahal izateko, hori guztia emakida-kontratuaren esparruan.
111. Beste alde batetik, gure aurreko irizpenean adierazi genuen bezala, berritasun garrantzitsu gisa, indarrean dagoen erregulazioaren aldean, 4. artikulua beste sailkapen bat egiten du garraio publikoko instalazioei buruz. Sailkapen horretan, zerbitzu publikokotzat jotzen direnak eta halakotzat jotzen ez direnak bereizten dira. Lehenengoak pertsonen lekualdaketa-beharrak asetzerantz bideratzen dira, mugikortasunerako eskubidea bermatuz, eta zerbitzua modu jarraituan ematen dute, administrazio eskudunak onartutako egutegiaren eta, hala badagokio, tarifa eta ordutegiaren arabera. Bigarrenak honela definitzen dira: normalean pertsonak garraiatzen dituztenak kirol- edo aisia-jarduera bat egiteko.
112. Zerbitzu publikokotzat hartzen direnak Administrazioak berak zuzenean eraiki eta ustiatu ahal izango ditu, edo, bestela, zeharka, dagokion kontratua esleitu zaien pertsonen bitartez, sektore publikoko kontratazioari buruzko legerian ezarritako edozein modalitatetan. Bestalde, zerbitzu publikokotzat hartzen ez diren kable bidezko garraio publikoko instalazioak baimentze-araubidearen mende egongo dira, bi figura horien artean dauden desberdintasunekin.
113. Indarrean dagoen TELeK, bere aldetik, zerbitzu publikokotzat eta zerbitzu partikulartzat baino ez ditu sailkatzen mota horretako instalazioak, eta





lehenengoek barne hartzen dituzte besteren konturako garraiorako erabiltzen diren guztiak, ordainsari bat ordainduta. Horrek esan nahi du gerta daitekeela, teoriar, gaur egun indarrean dagoen araubidearen arabera, instalazio bat zerbitzu publikotzat hartzea, eta aurreproiektuan aurreikusitako araubidearen arabera, berriz, halakotzat hartzen ez den garraio publiko gisa sailkatzea. Hala ere, proiektuak ez du ezer aurreikusten, esplizituki bederen, egoera posible horri eta horren ondorioei buruz.

114. Aurreproiektuaren beste berrikuntza nagusietako bat da kable bidezko garraioaren arloko eskumenaren barne-banaketa berria aurkeztea.
115. Testuak jarraipena ematen dio aurreko bi aurreproiektuetan finkatutako eskumen-banaketari, 5. artikulua bidez eman ere.
116. Lehen apartatuko lehen paragrafoak EAEEK —10.32 artikulua— EAERI ematen dion eskumen orokorra islatzen du, kable bidezko garraioari dagokionez. Eskumen hori eskusiboa da, eta ibilbide osoa Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean egiten duen kable bidezko garraiora mugatzen da, lehen esan dugunez.
117. Ahalmen hori erabiliz, aurreproiektuak EAeko Administrazio Orokorrari esleitzen dio EAeko lurralde osoan kable bidezko garraioen arau-garapena, plangintza orokorra eta koordinazioa.
118. Ondoren, lehen apartatuko hurrengo lerroketan, (I) kable bidezko garraioen eskumen orokorrak dituen ahalmen zehatzak mugatzen ditu —ezartzea, antolatzea, kudeatzea, ikuskatzea, zehatzea, gaikuntza-tituluak ematea, zerbitzuaren tarifak finkatzea eta instalazioa ustiatzen duen enpresaren betebeharrak betetzen direla kontrolatzea...—, eta (II) udalerriei dagokienez, eskumen horiek gauzatuko dituen lurralde-eremua zehazten du, hau da, hiri-eremutik kanpo dauden instalazio guztiak —hiriartekoak—, eta 50.000 biztanle edo gutxiago dituzten udalerrietan daudenak.
119. Hala ere, aztertutako aurreko testuetan ez bezala, oraingo honetan, 5.1 artikulua barruan, ez da ikusten funtzioak EAeko Administrazio Orokorrari gordetzen zaizkionik legearen xede diren kable bidezko garraio-instalazio guztien ikuskapen teknikoari dagokionez, ezta instalazio horiek aplikatu beharreko araudi teknikoan ezarritakoaren arabera baimendu eta martxan jartzeari dagokionez ere.
120. Paragrafo hori kenduta, badirudi 50.000 biztanletik gorako udalek bete behar dituztela eginkizun horiek, baldin eta azpiegitura horiek badituzte. Hala ere, garraioan zuzeneko eragina duten jarduerak izan arren, ez dira horregatik sartu behar arlo horretan. Neurri horiek garraioaren arloan zuzeneko eragina izateak



ezin gaitu eraman eskumen-prisma berean sartzera, helburua zein den aztertu gabe.

121. Konstituzio Auzitegiaren doktrinari jarraikiz (71/1982 KAE), «lehentasuna eman behar zaion eskumen-araua zein den aztertzeko erabili behar diren teknikak –batera aplikatu ezin direnean– oso gogoan izan beharko dute, definitutako eskumen-eremuekin batera, arauaren arrazoia edo helburua, Konstituzioaren arabera egon daitezkeen eskumenen banaketaren ikuspegitik».
122. Horrela, garraioaren esparruan, argi eta garbi bereiz daitezke araudi teknikoa edo sektoriala betetzeari lotutako zenbait ahalmen, baita zerbitzua emateko zaintzarekin eta kontrolarekin lotutako beste batzuk ere, eta haietan biltzen diren eskumenak. Batzuk instalazioan eskatutako baldintza teknikoak betetzeari eta horiek egiaztatzeari buruzkoak dira; beste batzuk, berriz, zerbitzuaren garapenarekin lotutako jarduerak egiaztatu eta kontrolatzeari eta zerbitzua ematearekin lotutako betebeharrak betetzen direla kontrolatzeari buruzkoak dira.
123. Guri dagokigunez, bereizketa argia egin da industria-segurtasunaren eremu materialari lotutako jardueren eta garraioaren berezko beste gai batzuen artean. Konstituzio Auzitegiak arrazoitu zuen bezala,

Lehen hurbilketa orokor batean, eta kasu zehatz bakoitzean egin beharreko modulazioak alde batera utzita, esan daiteke garraioaren arloko funtsezko muina osatzen dutela pertsonak edo salgaiak lekualdatzeko edo batetik bestera eramateko zerbitzua emateko baldintzak antolatzeari buruzko jarduera publikoek. Gai honen xede nagusia da pertsonak edo gauzak leku batetik bestera eramatea. Beraz, ez da kasualitatea Konstituzioak lurraldetasunaren irizpidea erabiltzea, hau da, garraioa nondik igarotzen den, Estatuaren eta autonomia-erkidegoen eskumena zedarritzeko bere 149.1.21 eta 148.1.5 artikuluetan. Ikuspegi horretatik, argi ematen du produktu industrialak –kasu honetan, ibilgailuak– fabrikatu eta homologatzearekin lotutako jarduera publikoak aurreko fase batekoak direla, joan-etorri edo garraioaren geroko jardueratik berezita, eta, ondorioz, duten xedea eta edukia ikusita, ezin direla eremu material horretan sartu, nahiz eta jarduera horiek garraioaren segurtasunean izan dezaketen ondorioak gero egingo diren ñabardurak egitera behartu. (203/1992 KAE)

124. Edo, Konstituzio Auzitegiak uztailaren 21ean eman zuen 243/1994 epaiaren arabera:



Eskumen-eztabaida, beraz, industriaren arloan zentratzen da, eta, horren barruan, industria-segurtasunean. Hain zuzen ere, 203/1992 KAEn (2. oinarri juridikoa) zehaztu genuenez, «industria» gaiaren funtsezko muinean sartzen dira, besteak beste, industria-arloak antolatzea eta industriako prozesuak edo fabrikazio-prozesuak arautzea, eta, zehatzago, industriako segurtasunaren azpigai edo gai-sektorean, jarduera publiko batzuk, ordenazio eta poliziakoak batez ere, industriako instalazio eta establezimenduen segurtasunarekin eta haietako industria-prozesu eta -produktuen segurtasunarekin zerikusia dutenak. Horixe da, hain zuzen ere, aurkaratutako xedapenen edukia.

125. Hala, ikuskapen mota bat izango da behar diren azterketak eta probak egitea instalazioak hasieran egokitzen direla eta ondoren eska daitezkeen segurtasun-baldintzei eusten zaiela bermatzeko. Gainerakoa, berriz, emakida edo zerbitzua gauzatzearen ikuskatze-lanak eta horien kontrola eta zaintza egiteko izango da.
126. Ikuskapen teknikoa ahalmen exekutibo bat da, instalazioaren kalitatea eta segurtasun-betekizunak egiaztatzeko, funtsean Europako erreferentziako araudietatik datozen araudi teknikoetan ezarriak.
127. Hori dela eta, ez ginateke ariko garraioaren arloko eskumenak baliatzeaz, baizik eta industriaren arlokoak, eta, zehatzago, industria-segurtasunaren azpiarlokoak. Ikuspegi horretatik, ahalmen horiek ezin dira egon toki-erakundeen berezko eskumen baten barruan; aitzitik, industria-eskumenen barruko ahalmenez ari gara, eta horiek EAEko Administrazio Orokorrak ditu bere.
128. Gauzak horrela, arauak argitze aldera, komeniko litzateke aurreko arau-proiektuetan jasotako eskumen-zehaztapena sartzeari, ahalmen horiek EAEko Administrazio Orokorrari dagozkiola adierazita. Ezin baita ulertu berriazko aipamenik ez egiteak berekin dakarrenik funtzio horiek dagokion udal-administrazioak gauzatu ahal izatea, horrelako aldaketa bat egiteko beharrezkoak izango liratekeen eskakizun formal eta materialak gauzatu gabe.
129. Aurreproiektuaren 5.2 artikulua 50.000 biztanle baino gehiago dituzten udalei esleitzen die hiri-eremuko kable bidezko garraio-instalazioen zerbitzuak ezartzeko, kudeatzeko, ikuskatzeko eta zehatzeko eskumena, zeina, aurrekari historikoei jarraikiz, administrazio autonomikoa egikaritzen baitzuen.
130. Aurreproiektuak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeak aipatzen dituen subsidiariorotasun- eta proportzionaltasun-printzipioei jarraikiz, 50.000 biztanle gorako udalei esleitzen die beren udalerritik igarotzen diren instalazioen gaineko



eskumena, TAOLekin bat etorri; izan ere, TAOLek dio berezko eskumena dela berezko garraio kolektiboa, eta biztanleria hori duten udalerriek bidaiari-garraio kolektiboaren zerbitzua emateko betebeharra ezartzen du. Testuinguru horretan, eskumen-banaketak ez du urratzen udalerrien autonomia, baizik eta indartzen, eta erabakimen handiagoa ematen die biztanle gehiago dituztelako kable bidezko garraio-premiak hiri-dimentsio hutsetik planteatzen direnei.

131. Eskumen-finkatze horrek zuzeneko isla eta ondorioa du hirugarren xedapen iragankorrean, eskumen horri lotutako bitartekoen eskualdatzea ezartzen baitu, 50.000 biztanletik gorako udalak (udalerrak) subrogatuta EAEko Administrazio Orokorak erakunde emaile gisa duen posizioan, legearen aplikazio-eremuan sartutako hiri-eremuko instalazio horiek administrazio-emakiden mende badaude edo egon badira.

## **II. kapitulua. Instalatzeko eta ustiatzeko administrazio-araubidea**

132. Kable bidezko garraioari buruzko lehen lege-aurreproiektuak —2012. urtekoa, azkenean onartu ez zena— bazuen, baita ere, II. kapitulu bat, izenburu berekoa, hiru atalekin, orain txostenerako aurkeztu diguten edukiaren oso antzekoa zutenak. Batzorde honek aurreproiektu horri buruz emandako 68/2012 Irizpenaren ondorioak guztiz baliozkoak direnez, egokitzat jo dugu gogoeta berriak sartzea erregulazioaren alderdi horri heltzeko moduari buruz, testua behar bezala ulertu eta interpretatu ahal izateko.
133. Aurreko hartan ez bezala, mugikortasun jasagarriaren legearen aurreproiektuak, zeina ez baitzen onartu eta Batzorde honen 188/2019 Irizpena jaso baitzuen, garraio-modalitate hori zerbitzu publiko gisa instalatu eta ustiatzeko erregulazioa baino ez zuen jorratu, eta egokiago iruditzen zaigun moduan egin zuen.
134. Izan ere, 188/2019 Irizpenaren 277. paragrafoak honela laburbiltzen du: «Bestalde, instalazioaren eta ustiatzeko administrazio-araubideari dagokionez, testuak orokorrean jotzen du sektore publikoko kontratazioaren araudira; horrela, bada, administrazio-klausula partikularren eta preskripzio teknikoaren pleguek eta emakida-kontratuek zehaztuko dute instalazioaren araubidea».
135. Premisa horiekin aztertuko dugu kapitulu hau, atal bakoitza bereizita aztertuz.
136. Aurreproiektuaren II. kapituluko 1. atalak hau arautzen du: bere aplikazio-eremuan sartzen diren eta zerbitzu publikokotzat hartzen diren kable bidezko garraioak instalatzeko eta ustiatzeko «administrazio-araubidea», 4. artikuluan ezarritako mugaketaren arabera, eta zerbitzu publiko horiek dira, funtsean,



ordainsari ekonomiko baten bidez besteren konturako garraioan jardutera bideratzen direnak..

137. Araubide horrek biltzen dituen xedapenen benetako izaera bere alderdi globalean aztertzen badugu, hiru elementu mota taxutzen saiatzen dela ikusiko dugu: (I) kontratazio-espedita prestatzeko jarduketak osatzen dituztenak —12. artikulutik 16.era—; (II) obrak edo ustiapena esleitu eta gauzatzeko fasea —17. artikulua—; eta (III) kontratuei lotutako edukia eta araubidea —18. eta 19. artikulua—.
138. Atal honetako xedapenetan etengabe jotzen dute sektore publikoko kontratazioari buruzko legeriara, eta esan genezake proiektatutako arauak ez diola bete-betean erantzuten kapituluaren izenburuari, baizik eta sektore publikoko kontratuen legerian araututako lizitazio-prozedura bat artikulatzen ari dela.
139. Kable bidezko garraio-instalazio baten obra baten lizitazioaz edo horrek ematen duen zerbitzu publikoaren kudeaketaz ari garenean, uste dugu SPKLn aurreikusitako prozeduren eta kontratu-moten mende egon behar duela.
140. Egia esan, aurreproiektuaren zioen azalpenak eta justifikazio-memoriak ez dute aipatu eskumen autonomikoa aipatzen —EAEren 11.1.b) artikulua— oraingo aurreproiektuan aipatu dugun araubidea ezartzeko.
141. Hortik ondoriozta daiteke ez dela arauaren asmoa mandatu hori egikaritzu jardutea, baizik eta proiektaturiko testura ekartzea kontratu publikoen legeriaren arauaketa, eta hori zuzeneko igorpenekin egitea, batzuetan, edo testuaren zati bat estrapolatuz, beste batzuetan.
142. Esan genezake teknika horren emaitzak, txostena egiten ari gatzazkion testuan islatzen den bezala, nolabaiteko segurtasunik eza sortzen duela.
143. Batzorde honek askotan esan duen bezala, eta, azkenengoen artean, 62/2021 irizpenean, landa-garapenaren lege-aurreproiektuari dagokionez:
  144. Garatzeko eskumen-bermea duen arau batetik ekarritako edukiak beste arau batean erreproduzitzeari *lex repetita* deritzo. Teknika arriskutsua da; izan ere, eskumenen gaineko nahasteak eragin ditzake legegintzako teknika hauek erabiltzeak, kasuan kasuko araudia erreproduzitzeko zilegitasunak eragindako espero ez bezalako ondorioak izan ditzakeelako (341/2005 Epaia, abenduaren 21ekoa, 3. OJ).



145. Oro har, teknika hori erabiltzen da testu integratu edo osoago bat aurkeztu nahi denean, mintzagai den testua ulergarriagoa izateko. Hala eta guztiz ere, agerikoa denez, *lex repetita* teknika erabiltzeak zenbait arrisku dakartza berekin; gerora araudia moldatzeak edukia aldatzeko beharra sor dezake, edo testua modu distortsionatuan erreproduzitu daiteke (gerta daiteke aldaketa ia antzemanazina izatea) eta, ondorioz, esanahia edo interpretazioa aldatu.

144. Jarraian, legegintza-teknika horren erabilera argitzen duten zenbait adibide azalduko ditugu, guztiak aipatzeko asmorik gabe.
145. Aurreproiektuaren 12.2 artikulua administrazio publiko eskudunek aurkeztu beharreko alde zuzeneko bideragarritasun-azterlanari buruzkoa da (1. apartatua), eta zuzenean jotzen du sektore publikoko kontratazioari buruzko legeriara, eta badirudi izen bereko figurari erantzuten diola, SPKLren 247. artikulukoari —obra-emakida— edo 285. artikulukoari —zerbitzu-emakida—, dagokien atalen barruan baitaude: «kontratua prestatzeko jarduketak».
146. Era berean, aurreproiektuaren 12.3 artikulua arabera, ekimen pribatua onartuko da azterketa horiek aurkeztean, eta hori SPKLren 247.3 artikuluekin bat dator, argi eta garbi.
147. Administrazio publikoek dagokien ekimen publikoaz eta ekimen hertsiki pribatuaz gain, administrazio publiko ez diren beste botere adjudikatzaile batzuen ere aipatu behar da, hala nola eskubide bereziak edo eskusiboak dituzten enpresa publikoena edo aurrekoak ez diren erakundeena; haien parte-hartzea bideragarritzat jotzen dugu jada aipatutako 3/2020 Errege Lege Dekretuaren arabera, eta aurreproiektuaren testuak ez du aurreikusten. Inguruabar horri birplanteamendua edo justifikazio egokia zor zaio.
148. 14. eta 15. artikulua zerbitzuaren ustiatetaren eta obren aurreproiektuari/proiektuari buruzkoak dira, SPKLren 248. artikulua arautzen duen aurreproiektuarekiko gutxi gorabeherako baliokidetasunean.
149. Nolanahi ere, 14. artikulua 248.2 artikuluekiko zertxobait desberdina den edukia ezartzen du, SPKLra berriaz jo gabe, eta, horrez gain, 2016/424 (EB) Erregelamendua, kable bidezko garraio-instalazioei buruzkoak, eskatzen dituen eskakizun teknikoetako batzuk gehitzen ditu, oinarriko arauaren mugen barruan baitaude.



150. 15. artikulua jendaurreko informazioaren izapidea eta beste txosten batzuk eskatzeko izapidea sartzen ditu, SPKLri berariaz aipatuz, SPKLren 248. artikulua 3. apartatua aurreikusitakoarekin bat etorriz.
151. Aurreproiektuaren/proiektuaren onarpena arautzen du 16.1 artikulua (SPKLren 248.4 artikulua), eta aldaketa garrantzitsuak sartzen ditu, gure ustez. Proiektua onartzeko 6 hilabeteko gehieneko epea ezartzen du, ezesteko isiltasuna aurreikusten du ebazpen espresurik ezean, eta zehaztu gabeko errekurtsio-araubide baten mende jartzea, presuntziazko ezespren horri bakarrik lotua, antza.
152. Horrela, proposamena egin duen organoak prozeduraren azpiespezie bat eratzen du, proiektua onartzearekin lotua, eta APELek arautzen duen administrazio-prozedura erkidearen berezko elementuekin lotzen da —ebazteko epea, isiltasunaren esanahia eta errekurtsioa—. Eta, hori guztia, Administrazioak idatzi behar duen obra-emakidako kontratazio-espedita bat prestatzeko fasean, zeinean hirugarren batek —eragile pribatu batek— ere ez baitu parte hartzen (hirugarren baten parte hartzeak justifikatuko bailuke prozedura horren mende jartzea), eta horrek elementu arrotz bat ekar lezake lizitazio-espedita egiteko prozesura, haren izaera desitxuratzera, eta, beraz, kentzeko modukoa litzateke.
153. 16. artikulua 2. apartatua errepikatu egiten du SPKLren 248. artikulua 4. apartatua onura publikoaren deklarazioari buruz xedatutakoa, berariaz aipatu gabe, eta nahitaezko desjabetzeari buruzko legeriaren berezko beste berezitasun batzuk gehitzen ditu, partzialki eta testuingurutik kanpo, eta nahikoa izango zen araudi horretara igortze egokia egitea (SPKLk 248.4 artikuluan egiten duen bezala).
154. 17. artikulua «eraikuntza eta ustiapena» du izenburu, eta lehenengo lau apartatuek kontratazio-prozeduraren alderdi heterogeneo batzuk aipatzen dituzte, lizitazio publiko baten esleipen-fasean eta egikaritze-fasean koka genitzakeenak.
155. 1. apartatua zaila da interpretatzen, eta ateratzen dugun ondorioa da, ez zalantza gutxirekin, aukera honi buruzkoa dela: kasu honi aplikatu dakizkiokeen SPKLko kontratu-motetara jotzea, zerbitzuaren ustiapena eta obra batera edo bereiz kontratatzeak aukera ematen dutenetara («edo» juntagailuak hori ulertzeko bidea ematen du).
156. Arauzko enuntziatu horrek aukera ematen du SPKLko edozein kontratu-figurara jotzeko garraio-instalazio baten obra eta ustiapena kontratatzeak; hala ere, enuntziatu hori nekez egokitzen zaio kontratua prestatzeko araubideari, zeren



eta, aurreratu dugunez, obra-emakidako kontratuari lotzen baitzaio funtsean, eta, batzuetan, zerbitzu-emakidako kontratuari.

157. 3. eta 4. apartatuek, hurrenez hurren, SPKLren 256. artikulua 1. eta 4. apartatuak errepikatzen dituzte, eta apartatu horiek, sistemaren aldetik, «emakidaren xede diren obrak eraikitzea» jorratzen duen atalean kokatzen dira. Horrenbestez, era partzialean sartu da oinarrizko legeria.
158. Bestalde, 5. apartatuak, azkenak, hau xedatzen du, era asistematikoan: enbargaezinak direla zerbitzu publikokotzat jotzen diren kable bidezko garraio publikoko instalazioak, eta, horrela, argi eta garbi jotzen du, partzialki bada ere, Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuak (aurrerantzean, EOLTB) 13. artikuluan ezarritakora, baina arau hori aipatu gabe; izan ere, aipatutako garraio-instalazio horiek jabari publikoko ondasuntzat hartu behar dira EOLTBren 4.1 artikuluko definizioaren arabera.
159. 19. artikulua kontratuen indarraldiaren eta amaieraren araubidera hurbiltzen da: gehieneko iraupen-epea, luzapenak, azkentzeko arrazoiak, kontratuak suntsiarazteko arrazoiak eta suntsiarazpenaren ondorioak. Sei atal horietan guztietan jotzen du sektore publikoko kontratazioari buruzko legeriara, eta SPKLren manuak ere kopiatzen ditu partzialki, hala nola 29.6 artikulua (iraupena eta luzapenak), 209. artikulua (azkentzea), eta terminologia aldatzen du, epea amaitzea aipatzen baitu kausa gisa, kontratua betetzea aipatu ordez, eta 211. artikulua (suntsiarazteko arrazoiak).
160. Labur-labur azpimarratu behar da aurreproiektuaren testuak kontratua suntsiarazteko arrazoen artean (5. paragrafoa) sartu duela kontratua iraungitzea, kontratistaren ez-betetzeagatik. Hala ere, ezin da argi ikusi kausa berri bat ezartzen ari den, edo izena baino ez zaion aldatzen ari, SPKLn jada definituta dauden kontratistaren ez-betetzeei lotuta dagoenean. Era berean, litekeena da emakida iraungitzeaz aritzea, arau-hauste astun edo oso astun bat egiteagatik ezarritako zehapenaren neurri osagarri gisa aurreikusitakoaz (aurreproiektuaren 35.1 artikulua). Nolanahi ere, kontzeptu horri lotutako profil zehatzak argitu beharko lirateke, haren izaera zehatza hobeto ulertu ahal izateko.
161. Oro har, iradoki behar da zorroztasun handiagoz argitu beharko litzatekeela hautatutako legegintza-teknika, ziurtasuna irabazteko araubide konplexu eta zabal baten aplikazioan, araubide horrek behin eta berriz aipatu dugun berariazko legerian baitu sorburu, eta, gainera, oinarrizko xedapen asko ditu.





162. 2. atalak 20. artikulutik 24.era bitartekoetan jorratzen du zerbitzu publikokoak ez diren garraio publikoko instalazioen eraikuntzarekin eta ustiapenarekin lotutako araubide juridikoa. Aurreproiektuaren 4.2 b) artikulua honela definitzen ditu: normalean pertsonak garraiatzen dituztenak kirol- edo aisia-jarduera bat egiteko.
163. Aurreproiektuak administrazio-prozedura baten mende jartzen du instalazioaren eraikuntza, eta prozedura hori proiektua onartzearekin amaitzen da, eta proiektua hasierako eskaerari erantsi behar zaio (20. eta 21. artikulua), eta, era berean, ustiapenaren hasiera administrazio-baimen baten mende jartzen du, egiaztapen tekniko eta juridiko jakin batzuk eskatzen dituena (22. artikulutik 24.era).
164. Mota horretako instalazioak onartzeko eta baimentzeko baldintzak ezartzeko, araua sustatzen duen organoak konfigurazio-askatasun handiagoa du, ez baitu zerbitzu publikoak izaerak dakarren mugarik; izan ere, zerbitzu publikoak une oro bilatu behar ditu gastu publikoaren eraginkortasuna eta tratu-berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren, gardentasunaren, proportzionaltasunaren eta osotasunaren printzipioak errespetatzea, kontratazio publikoa erregulatzen duten arauen bitartez (aurreproiektuaren 2. kapituluaren 1. atala).
165. 21. artikulua administrazio-prozedura baten funtsezko ezaugarriak egituratzen ditu, eta administrazio-prozedura horren behin betiko ebazpenak onartu edo baztertu egin behar du eraikuntza-proiektua, lege-, teknika- eta ekonomia-gaitasun nahikoa egiaztatzen duen edozein pertsona fisiko edo juridikok aurkeztua. Proiektuaren edukiari dagokionez, aurreproiektuaren 14. artikulura jotzen da zerbitzu publikoko instalazioen kasuan; ildo beretik, prozedurak badu 16.1 artikuluan aurreikusitakoaren antzik, baina hemen doiago kokatzen da.
166. Batzorde honek ohartarazi behar du, era berean, administrazio eskudunak eraikuntza-proiektua onartzeko prozedurak esparru honetan hartzen duela zentzua: eragile pribatu batek prozesua eskatu, prozesuan parte hartu eta administrazio publiko batek ebazten duena.
167. Hala ere, 20. artikulua aurreikusten du administrazio publiko batek ekimena izatea instalazio bat ezartzeko, 4. artikuluko definizioaren arabera zerbitzu publikokoa ez dena, kirol- edo aisialdi-jarduera bati lotuta dagoelako. Egia esan, helburu horri lotutako ekimen publikoa guztiz bideragarria da, baina, kasu horretan, kontratazio publikoa arautzen duten arau orokorretara bideratu beharko litzateke jarduketa hori, eta horrek eskatuko luke dagokion aipamena egitea testuan.
168. 23. artikulua edukiari askotariko iruzkinak zor zaizkio.



169. Egin-eginean ere, «baimenaren baldintzak» izenburu orokorraren azpian, alderdi heterogeneo xamarrak biltzen ditu: klausulen edukia, indarraldia eta luzapenak, ustiapen-zerbitzua eteteko arrazoi bat eta ustiatzeko baimena kentzeko arrazoi bat.
170. 1. paragrafoaren arabera, indarraldia urteroko luzapen baten mende dago, eta luzapena, berriz, zenbait eskakizun tekniko egiaztatzearen mende. Hala ere, ez da zehazten zein den indarraldi orokorra edo zein irizpideren mende egon daitekeen indarraldi hori, edo, agian, ulertu behar da baimenak ematen duen indarraldia ezin dela urtebetetik gorakoa izan, urteko nahitaezko berritzearekin bat etorritz. Nolanahi ere, argitu egin beharko litzateke inguruabar hori.
171. Era berean, 3. apartatuan aurreikusitako kasuei buruzko hausnarketa sakonago batek honako hau ondorioztatzen garamatza:
172. Galdetu daiteke ea instalazioaren ustiapen-zerbitzuaren etendurak, indarreko arauak eskatutako segurtasun-baldintzak betetzen ez direnean, aipatzeko moduko antzekotasunik ba ote duen zerbitzua geldiarazteko kautela-neurriarekin, 33. artikuluko 2. apartatuan xedatzen denarekin, «30. artikuluko a) eta b) letretan tipifikatutako arau-hausteen kasuan».
173. 30. artikuluko a) eta b) apartatuek honako kasu hauek aipatzen dituzte: (I) garraio-zerbitzua nahitaezko gaikuntza-titulurik gabe ematea, eta (II) pertsonen segurtasunari eragin diezaioketen baldintzak bete gabe ematea arrisku larria eta zuzena dakarten neurrian.
174. Lehen begiratuan, b) apartatuko arau-hauste oso larria 3. paragrafo honek definitzen duen etete-arrazoiaren parekoa da, eta, erabilitako terminologia desberdina den arren (geldiaraztea), uste dugu ez dela kautelazko neurrietan aurreikusitakoaz bestelako kasu bat.
175. Jakina, zerbitzua etetea/geldiaraztea bezalako ondorio baten benetako izaerari erreparatuta, biak faktura bereko ez-betetzeari lotuak, aipatzeko moduko baliokidetasuna aurkituko dugu, eta horrek erregulazio koherente bat aholkatuko luke, zehapen-prozedurari lotutako kautelazko neurrien fasean txertatua.
176. Gainera, horrela egingo litzateke aurreikuspen hori bateragarri otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 31. artikuluan ezarritakoarekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigorrezko Ahalari buruzkoa baita lege hori (ZAL).
177. Etetea eragin duen ez-betetzea ezarritako epean zuzendu ez, eta horren ondoriozko baimen-errebokatzeari dagokionez, esanbidezko lotura dago



zehapen-prozedurarekin eta 35.1 artikuluekin, non egoki kokatuta baitago neurri osagarri gisa arau-hauste larri edo oso larri bat egiteagatik.

178. Ez dugu uste 23.2 artikulua beste kasu bat eratzen ari denik, behar bezala argitu beharreko alderdia bada ere.
179. Nahikoa antzekoak dira 24. artikuluko lehen apartatua eta 7. artikuluko bigarren apartatuko lehen paragrafoa, dagokion baimenaren mende jartzen baitute kable bidezko garraio-instalazio baten funtsezko edozein aldaketa; gainera, 7.2 paragrafo horrek garrantzizko edukia gehitzen du, aurrekoarekin banaezina, funtsezko aldaketatzat hartu behar dena definitzen baitu. Nolanahi ere, egokia da arauaren testuan eduki bera duten xedapenak errepikatzea eragoztekoa, eta horrek esan nahi du baloratu egin behar dela zer kokapen dagokion sistematikoki.
180. Azkenik, ez dugu eragozpenik ikusten 25. artikulua (3. atala) instalazioaren obra eta ustiapen-baimena onartzeko prozeduraren gutxieneko erregulazioa egiteko, zerbitzu publikokotzat hartzen ez diren garraio publikoko instalazioak arautzen dituen atalean xedatutakora erabat lotuz. Hala ere, testuak aldaketa batzuk iragarri ditu prozedura horietan; hain zuzen ere, prozedura horien «ezaugarri berezietatik» eratorriak, espezialitate horien izaera ulertzeko moduko oinarritzko elementurik aipatu gabe: aipatuz gero, nabarmen erraztuko litzateke xedapenaren aplikazioa.

### **III. kapitulua. Instalazioak ikuskatzea eta kontrolatzea:**

181. Gure irizpenean adierazi genuenez, ikuskatzaileek kautelazko geldiaraztea agintzeko aukera ez zaio arrotz gure ordenamenduari. Adibide argiena ZALen aurkitzen dugu, haren 32. artikulua funtzionario ikuskatzaileek kautelazko neurriak salbuespenez hartzea aurreikusten baitu.
182. Beraz, aukera hori egongo litzateke aurreproiektuak horri buruz ezer esango ez balu ere. Hala ere, ez da alferrik izango gogoratzea zer baldintza aurreikusten duen ZALen 32. artikulua. Artikulu horren arabera, hau egin behar da: I) eskumena duen organoak dagokion zehapen-prozedura premiaz hastea; II) prozedurari ekiteko egintzan arrazoi eta guzti zehaztea neurri horien ezeztapena, mantentzea edo aldaketa; III) alegazioen izapideari ekitea jarraian; eta IV) kautelazko geldialdia iraungi egingo litzateke hartu zenetik lau egun igaro eta zehapen-prozedura ireki ez bada.
183. Kautelazko jarduketa hori ez da aurreproiektuaren beraren 36. artikulua izaera orokorrarekin aurreikusi dena bezalako; izan ere, zehapen-prozedura baten esparruan hartutako neurriak baino ez ditu aipatzen, eta, beraz, kasu honetan,



zehatzeko ahala egikartzeko eskumena duen organoari baino ez zaio esleitzen, eta ZALen xedatutakora jotzen du neurri horiek hartzeari dagokionez.

184. Bada, ikuskatzailtzak agindutako kautelazko geldiarazpenerako sartu nahi den eskema ZALen 32. artikuluan aurreikusitakoa bada, argi adieraztea gomendatzen da, artikulua horretan xedatutakora joz. Hala ez bada, hau da, kautelazko neurria ez bada nahitaez zehapen-prozedura batekin lotu nahi, edo berezitasunen bat ezarri nahi bada, adibidez, neurriaren gehieneko iraupen-epeari dagokionez, aurreproiektuan jaso beharko da, behar gabeko arazorik ez sortzeko aplikazioan.

**Bigarren xedapen iragankorra:**

185. Igogailuak ez baldin badaude ere proiektaturiko arauaren aplikazio-eremuaren barruan, horrek ez du eragozten bigarren xedapen iragankorrak gutxienez hiru aurreikuspen jasotzea, nolabaiteko garrantzia dutenak eta igogailuei eragiten dietenak.
186. Lehenik eta behin, eta hirugarren xedapen iragankorrekarekin nolabaiteko paralelismoa gordez, hau xedatu du: udalak EAEko Administrazio Orokorren lekuan subrogatuko dira erakunde emaile gisa, baldin eta udalerrri horietan hiri-eremuko zerbitzu publikoko igogailuak administrazio-emakiden mende badaude edo egon badira.
187. Justifikazio-memoriak arrazoitzen du beharrezkoa dela hiri-eremuko igogailu horiek, zeinen titulartasuna Administrazio Orokorrek bereganatu baitzuen joan den mendearen erdialdean herri-lanen legeriaren arabera, kokatuta dauden udalerriek kudeatzea:
- Igogailu horiek hiri-izaerako premiei erantzuten diete; beraz, beren udal-mugarteko mugikortasuna eta udalerrri horietan bizi diren pertsonen mugikortasun-beharrak ikuspegi integral batetik ezagutzen eta kudeatzen dituzten udalen erantzukizuna izan behar dute.
188. Bigarren xedapen iragankorraren lehen apartatu horren bigarren tartekiaren arabera, subrogazioaren baldintzak zehatzeko, ukitutako administrazio publikoek hitzarmen bat sinatu beharko dute.
189. Hain zuzen ere, zehaztapen hori proposamena egin duen organoaren eta Tokiko Gobernuen Batzordearen artean egindako Aldebiko Batzordean adostutakoaren emaitza da; izan ere, Bilboko Udalak bigarren xedapen iragankorrari buruz egindako alegaziora (ez zuen hirugarren xedapen iragankorra sartu) eta igogailuen subrogaziora mugatu zen. Azkenik, erabaki da zehaztu egin behar dela



zer betebeharrak dauden eskualdatzea gauzatzean, administrazioen arteko lankidetzaren tresna bat sinatuz, administrazioek hartutako konpromisoen sorta zedarrizteko.

190. Batzordearen ustez, bigarren xedapen iragankorrak gauzatzen duen botere adjudikatzailearen subrogazioak emakida-kontratuaren eremuan baino ez ditu hedatzen ondorioak –titulartasun-aldaketa–. Eta eskualdaketa juridikoki baliozkoa dela legea onartzen den egunetik, une horretan aldatzen baita erakunde emailearen posizioa emakida-kontratuan.
191. SPKLk ez du arautzen erakunde emailearen lagapen-ahalmen hori, baina EOLTBen arau-esparruan sar daiteke, eta hari erantzun beharko dio zerbitzu publikoari atxikitako ondasunen titulartasunaren aldaketa behar bezala gauzatzeko.
192. Hori dela eta, EOLTBen arabera, zerbitzuak eskualdatzearen xehetasunak, batez ere ekonomikoak, eta, bestalde, ondasunen titulartasun-aldaketa gauzatzeak dekretu forma hartu beharko lukete EAEko Administrazio Orokorraren eremuan. Bestalde, udal-eremuan, Osoko Bilkuraren erabaki bat beharko litzateke hori berresteko.
193. Beraz, ez diogu inolako eragozpenik ikusten maila horretako arau-xedapen batek titular-aldaketa horri buruz, eta, ondorioz, emakida-kontratuan duen posizio juridikoari buruz xedatzeari, behin kontuan hartuta eragiketa horren izaera murriztua eta justifikatua eta hura antolatzeke iragankortasuna, administrazio-emakidaren indarraldiaren mende soilik.
194. Proiektaturiko arauaren III. eta IV. kapituluaren mende jartzeari dagokionez, ulertu behar da subrogazioaren xedapen irakurketa murriztua egiten dela, proiektaturiko arauaren zerbitzu publikoko igogailuetarako eskumen-araubide orokorra definitzen ez den heinean, eta kontuan hartuta lotura hori aldi baterako eratzen dela emakida-araubidea indarrean dagoen bitartean.

### **C) Legegintza-teknikaren arloko oharra**

195. Araugintza-teknika dela eta, Batzordeak gogorarazten du aurreproiektuak egokitu egin behar duela, oro har, legearen proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko 1993ko martxoaren 23ko Gobernu Kontseiluaren Erabakiaren bidez onetsitako gidalerroetara, XOEPLren hirugarren xedapen gehigarriaren arabera aplikagarriak direnetara.



196. Haietan adierazitakoari jarraituz, ohartarazpen hauek egin dira, arauzko produktu teknikoki osoago bat lortze aldera.
197. 2.2.a) artikuluan, araubide iragankorra aipatzen denean, kendu egin beharko litzateke lege honen bigarren xedapen iragankorrean xedatutakoaren aplikazioari buruzko aipamena, xedapen horretan behar bezala zehazten baitira araubide horren berezitasunak.
198. 2.2 artikuluan ere, *in situ* lokatiboa erabiltzeak ez du aukerarik ematen aipatutako instalazioetatik bereizi nahi den ezaugarria zein den jakiteko. Badirudi egokiago dela instalazio finkoak direla aipatzea d) atalean. Bestalde, *in situ* hori e) apartatutik ezabatzeak mezua argitzen lagunduko luke. Are zehatzagoa izango litzateke mezua, baldin eta adierazten bada industria-xedeetarako erabiltzen diren instalazioei aplikatuko zaiela eta, hala badagokio, ezarrita daudenak direla zehaztea.
199. Hobeto egituratzeko, 5.1 artikulua bigarren apartatuak paragrafo independente bat osatu beharko luke
200. 13. artikulua xedea da iragartzea prozedurak eskatzen duela ustiapen-proiektu bat aurkeztea, 14. eta 15. artikuluetan arautua. Manu hori ez da nahikoa artikulua bakar batean bereizita agertzeko, eta 14. artikulua lehen apartatua izan liteke.
201. Atal honetako azken bi artikuluek (18. eta 19. artikuluek) eraikuntza- eta ustiapen-kontratuen erregimena arautzen dute. Hala ere, nabarmendu behar da testuak, batzuetan, arrazoi justifikaturik gabe, «eta» juntagailuaren ordean, «edo» juntagailua erabiltzen duela. Bateratu egin beharko litzateke kontu hori, edo irakurketa desberdinak eman nahi izanez gero, behar bezala azaldu.
202. 23. artikuluko 2. paragrafoa, gure ustez, 1. paragrafo gisa kokatu beharko litzateke, baimenaren edukira jotzen baitu, zeinean baldintzak sartzen baitira, eta, haien artean, indarraldia eta berritzea: badirudi egokiago dela haiek gero arautzea, bigarren paragrafoan.
203. 23. artikuluko 3. paragrafoak manu bereizia beharko luke, ez baititu baimenaren baldintzak arautzen, baizik eta baimena betetzeari dagozkion bi inguruabar. Komenigarria litzateke xedapen edo manu bakoitzaren edukiari homogeneousotasun handiagoa ematea, goiburuko tituluari hobeto erantzuteko.
204. 26.6 artikuluko bigarren apartatuak eduki autonomoa du, eta paragrafo independente batean jarri beharko litzateke.



205. Kautelazko neurriez ari denez, 33.2 artikulua hau adierazi beharko luke: instalazioa geldiaraztea eta ixtea «kautelazkoa» dela.
206. Aipatutako jarraibideen arabera, xedapen gehigarri bakarraren edukia azken xedapen batean jaso beharko litzateke, jarduteko agindua edo arau-osagarria jasotzen baitu. Bestalde, garapenerako deia agintari bati egin beharko litzaioke, eta ez erakunde bati. Apartatu berean, «indizeak» aipatzen dira, eta singularrean erabili beharko litzateke.
207. Bigarren eta hirugarren xedapen iragankorren edukiari dagokionez, araubide juridiko bereziak jasotzen dituztenez, egokiago dirudi xedapen gehigarri gisa kalifikatzea.

## **ONDORIOA**

Batzordearen irizpena da, txosten honen mamian egindako oharrek kontuan hartu ostean, lege-aurreproiektua Gobernu Kontseiluari helaraz dakiokela, onetsia izan dadin.

Eta hala ziurtatzen dut, Gasteizen, 2021eko abenduaren 23an, batzordeburuaren oniritziarekin, jakin eta kontuan har dadin. Era berean, azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 30.2 artikulua xedatzen duen betebeharra gogorarazten dizugu: Batzorde honi jakinarazi behar zaio azkenean onartutako xedapena edo ebazpena, antolamendu eta funtzionamenduaren araudia onartzen duen irailaren 12ko 167/2006 Dekretuaren 34. artikulua xedatzen duen moduan eta epean.

Jesús María Alonso Quilchano,

**Idazkaria**

O.E.:

Sabino Torre Díez,

**Batzordeburua**

**Elektronikoki sinatua**